

The background is a textured teal color with various white geometric patterns, including large circular mandala-like designs and smaller floral motifs. A large, semi-transparent orange-red shape is positioned behind the title text.

ARRAIL bat HARRESIAN

Marokok legez kanpo okupaturako
Mendebaldeko Saharako eskubide
ekonomikoak, sozialak eta kulturalen
urraketei buruzko txosten kolektiboa

ARRAIL bat HARRESIAN

Marokok legez kanpo
okupatutako Mendebaldeko
Saharako eskubide ekonomikoak,
sozialak eta kulturalen urraketeki
buruzko txosten kolektiboa

Arrail bat harresian: Marokok legez kanpo okupatutako Mendebaldeko Saharako eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalen urraketei buruzko txosten kolektiboa

Egilea: Idoia Landaluce (koord.)
Arantza Chacón
Idoia Landaluce
Jesús L. Garay
Miren Ogando
Natxo Esparza
Raquel Calvo

Euskerazko bertsioa: Ixai Urraza

Inprimaketa: EPS Comunicación

Diseinua eta maketazioa: EPS Comunicación

L.G.: VI-735/2018

ISBN: 978-84-09-04152-7

Morocco occupied our country, Morocco occupied ourselves from the inside, from out, our lives, personal lives... so Morocco doesn't only occupied the land and the country, but also, occupied our lives.

Saharar emakumea, Aaiun, 2015

Lurraldeetara iritsi ginen egunean, ia inor ez zegoen errepide batetik sartu ginen. Tarte batez gelditu behar izan ginen, kamioi bat irauli egin baitzen bazterbidean. Sandiak zeramatzan. Ezer gutxi ikusi ahal izan genuen konboitik (olana batekin estalita zegoen): asfaltoa sandia-zukuz gainezka zegoen, bai eta errepidearen eskuineko aldean iraulita zegoen kamioiaren zati bat ere. Gidariak lasterka jaitsi ziren kamioitik, istripua izan zutenei laguntzeko. Gu konboian geratu behar izan ginen, segurtasunagatik. Bidaiari berriz ekin genion ezer larririk gertatu ez zela ziurtatu zutenean. Baina hiruo argi geratu zitzaigun gure bidailagunaren esaldia. Esan zigunez, hiru ordu itxaron beharko zioten anbulantziari, "hemen bizitzak ez duelako ezer balio". Saharan ginen, aurrerago azalduko duguna ezagutzeko...

Miren Ogando, brigadista
Euskal Herria, 2017

Aurkibidea

ESKERRAK EMATEA	9
METODOLOGIA	13
PROZESUA	13
Mendebaldeko Saharako Giza Eskubideen Laborategia – 2013. urtea	14
Giza eskubideen laborategia: Mendebaldeko Saharako EES- Ken egoerari buruzko ikerketa. Prestakuntzako eta iker- kuntzako gazte lantaldeak - 2014. urtea	15
Lehen bidaia: Koordinazioa-prestakuntza	17
Bigarren bidaia: Osasunerako Eskubidea	18
Hirugarren bidaia: Hezkuntzarako Eskubidea	19
Laugarren bidaia: Lanerako Eskubidea	19
Bosgarren bidaia: Ebaluazioa	19
LANERAKO ESKUBIDEA	23
1.1. Hasteko zenbait gogoeta	23
1.2. Nazioarteko zuzenbidea eta barne-legeria: erreferentziako markoa	24
1.3. Lanerako Eskubidea Mendebaldeko Saharan: sarrera	27
1.3.1. Arrantza-sektorea	35
1.3.2. Meatzaritza-sektorea	36
1.4. Sindikalismoa	37

1.5. Diskriminazioa eta berdintasuna	38
1.6. Ondorioak eta oharrak	43
OSASUNERAKO ESKUBIDEA	47
2.1. Giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea: erreferentziako markoa	47
2.2. Osasunerako Eskubidea Mendebaldeko Saharan: sarrera	52
2.3. Osasun-zerbitzuak	54
2.3.1. Osasun-zerbitzu publikoak	55
2.3.1.1. Amatasuna	57
2.3.1.2. Giza baliabideak eta materialak	58
2.3.1.3. Osasun-txartelak	60
2.3.2. Ospitale pribatuak	61
2.3.3. Ospitale militarra	61
2.3.4. Medikuntza tradizionala	62
2.3.5. Periplo medikoa	63
2.4. Arreta medikoa manifestazioen ondoren	64
2.5. Ondorioak eta ohartarazpenak	65
HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA	67
3.1. Giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea: erreferentziako markoa	67
3.2. Hezkuntzarako Eskubidea Mendebaldeko Saharan: sarrera	69
3.3. Hezkuntza-ereduak	70
3.4. Baliabide materialak eta giza baliabideak	72
3.5. Desberdintasuna, diskriminazioa eta errepresioa	73
3.6. Ondorioak eta ohartarazpenak	77
KONTSULTATZEKO ETA INFORMAZIOA HEDATZEKO BIBLIOGRAFIA	79
Gidaliburuak, artikulua eta argitalpenak	9
Ikus-entzunezko materiala	81
Kontsultarako webguneak	81

Eskerrak ematea

Txosten hau ezingo litzateke argitaratu hamarka pertsonak eta erakundek lan kolektiboko bost urte horietan konpromisorik eta laguntzarik izan ez balute. Lerro hauen bidez, eskerrak eman nahi dizkiegu haiei guztiei.

Batzuen izenak ezin izango ditugu aipatu segurtasun-arrazoiengatik. Beste batzuenak, ordea, agian ez ditugu gogoratuko, gizakien memoria ahula baita sarritan. Beraz, alde zurratik barkamena eskatzen dugu, badaezpada.

Hala ere, ozen esan daitezkeen izenak hona ekarri nahi ditugu, haiek eta erakundeek egindako lan handia ezagutzera emateko eta balioztatzeko. Beren ahaleginei esker, arrail bat ireki da Marokoko gobernuak eta bere lagunek Saharar herriaren inguruan eraiki duten isiltasunaren harresian. Saharar herriak oraindik bizirauten du legez kanpo okupatutako Mendebaldeko Saharako lurraldeetan, okupazio-agintaritzen errepresioa gorabehera, beren eskubideak etengabe urratzen badituzte ere eta beren nortasuna desagerrarazteko eta ahazteko politika jasaten badute ere.

Horregatik, lehenik eta behin, pertsona anonimoak aipatu behar ditugu, saharar emakume eta gizonak, beren konfiantza eta itxaropena gazte brigadisten esku utzi zituztenak. Beren segurtasun pertsonala eta beren familia eta lagunena arriskuan jarri zuten errealitate bortitzaren lekukotza emateko. Haiek sahararrak izaten jarraitu nahi dute, Marokoren okupazioa gorabehera, eta konfiantza dute ezezagun batzuek beren istorioak hedatzera emateko. Ez diegu huts egin nahi orrialde hauekin.

Bigarrenik, prozesuan parte hartu duten gazteen taldea aipatuko dugu. Prozesua Mendebaldeko Sahararako Giza Eskubideen inguruko Ekimenen Laborategiarekin hasi zen 2013an, eta txosten hau aurkeztu bitartean garatuz joan da. Urte horietan zehar lan asko egin dugu, giza eskubideekiko eta saharar he-

rriaren borrokarekiko gazte horien konpromisoari esker. Txosten honen jatorri izan zen ikerkuntzaren lehen fasea hausnartzekoa izan zen. Hamarka gaztek hiru ardatz nagusiren inguruan pentsatu eta prestatu zuten beren burua: generoa eta feminismoa, giza baliabideak eta eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak (EESK).

Sahara Okupatuan gertatzen zena aztertzeko daturik ez zegoela egiaztatu zuten, taldeak lurraldean bertan ikertzeko beharra planteatu zuten, agerikoa bazen ere armada batek okupatutako lurralde batean sartzea eta erabilgarri zizuten tresnekin ikerkuntza-prozesu bat egitea zaila izango zela. Ondorioz, beren burua prestatu zuten, ikerkuntza eta landa-lana diseinatu zuten klandestinitatean egindako zenbait bidaiaren bitartez, eta, geroago, ikusitakoa, entzundakoa, erregistratutakoa, sentitutakoa eta bizitakoa aztertu zuten giza eskubideen ikuspegitik.

Miren Ogandok gazteen taldea “itsasteko” lanak egin zituen ekarpen pertsonal handiez gain. Eneritz Chávarrik bere baikortasuna erantsi zigun. Askoz gehiago dira aipatzekoak: Ainhize Gomez sutsua, Ibon Iturrioz umoretsua, Yeray Peña bere ironiarekin, Josu Narbarte, Santi Gimeno, Dani de Ayala, Maje Girona, Julen Ormaetxea, Markel Aldai, Ana Carrera, Carolina Martín, Aitor Aldai, Elsa Irigoyen, Adrián Aginalgalde, Alicia Benedetto, Sabin Aranburu, Natxo Esparza, Mariem, Itxaso, Iñaki, Jon... Haiek guztiek lagundu dute arrail hori irekitzeko, eta, horri esker, orain aukera dugu okupazioaren mende dagoen saharar herriaren errealitatea hobeto ezagutzeko.

Talde biek, brigadistek eta sahararrek, elkar topatzeko, konplizitate-sare handi behar izan da. Nabarmentzekoa da, adibidez, Equipe Mediaren aktibisten taldearena eta komunikazioko profesionalena. Haiek gabe ezinezkoa izango litzateke hau guztia. Hemen ez dugu zehaztuko harreman hori nola sortu zen, baina esango dugu zintzotasunez aitortzen dugula lan hori eta saharar herria askatzeko egunero egiten duten borroka baketsuak islatzen duen ausardia eta konpromisoa miresten dugu.

Sare horren jatorria da Arabako SEADen Lagunen Elkartearen Garape-nerako Hezkuntza taldearen lana. Zehazki, Idoia Landaluce Fernándezena, proiektuaren *alma matera* eta arloko teknikaria 2015era arte. Apustu arriskutsua egin zuen; izan ere, testuingurua eta gaia konplexuak ziren, bai eta berriak ere. Eta, gainera, elkartearen indarrak eta gaitasunak neurtzeko zeuden. Horrek guztiak beste ikuspegi batetik pentsarazi zigun denoi, eta erronka berriek ilusioz bete gintuzten. Berak Jesus Garay aipatuko luke, pentsatzeko era berri horretarako laguntza izugarria eman zuen eta. Eskerrik asko biei.

Santi Gimeno eta Ahmed Ettanjik hasieratik egin zuten bat proposamenarekin, eta, beren errealitate horri eta lan teknikoari buruzko ezagutza ez ezik, gogo handia ekarri zuten. Ekimenera hurbiltzen zirenak animatzen zituzten.

Beren lanari eta Arabako SEADen Lagunen Elkarteko gainerako kideen inplikazioari esker, hasieratik aukera egon zen hainbat alorretan esperientzia eta ezagutza handiko lantalde bat sortzeko, hala nola Nazioarteko Zuzenbidean, Giza Eskubideetan eta Saharako gatazka eta Mendebaldeko Saharako legez kanpoko okupazioa garatu diren testuinguru historikoan, politikoan, sozialean eta ekonomikoan. Hassana Aaliak, Arantza Chacónek, Jesus Garayk, Malen Vilchesek, Javier García Lachicak, Juan Soroetak, Carlos Vilchesek eta abarrek gazteak lagundu zituzten laborategiko lana orientatzen eta txosten hau sortuko zuten ikerkuntza-ildoak ezartzen.

Lan horretan, parte hartu zuen NUP Soziologia Sailak, Natxo Esparza buru izanik. Lurraldeko ikerkuntza-prozesuan eta dokumentu honen aurreko datuen lehen analisisian lagundu zuen.

Ezin dugu ahaztu lekukotzak aztertzeke zein edukiak laburtzeko eta azaltzeko lana, elkarrizketak, eztabaida-taldeak eta inkestak ulergarria den eta helburura egokitzen den dokumentu bihurtzeko beharrezkoa baita. EESKEn urraketen azterketa, zehazki, Marokok legez kanpo okupatutako Mendebaldeko Saharako lurraldeetan bizirauten duen saharar biztanleen Lanerako, Osasunerako eta Hezkuntzarako eskubideak. Talde horrek gauzatu ditu orrialde hauek, Miren Ogandok eta Arantza Chacónek zuzenduta. Eskerrak, bereziki, haiei bie.

Errepaso labur honi amaiera emateko, Vitoria-Gasteizko Udala aipatuko dugu, eta, bereziki, Garapenerako Lankidetzaren arloa. Izan ere, hasieratik lagundu diote gasteiztar gazteen parte-hartzea eta konpromisoa (Mendebaldeko Saharan giza eskubideak defendatzeko) oinarri duen ekimen honi. Eskerrik asko bere taldeari konfiantzagatik, laguntzagatik eta pazientziagatik.

Arabako SEADen Lagunen Elkartea
2017ko urria



Metodologia

Aspaldi, 2013an, sakontasun apur batez Mendebaldeko Saharako gatazka ezagutzeko erabakia hartu zuten zenbait gaztek egindako lanaren emaitza da txosten hau. Arabako SEADen Lagunen Elkarteak Gasteizko Udalaren laguntzarekin egindako proposamena zen parte hartzeko prozesu bat sortzea, haren bitartez, gaia ezagutzeko eta konpromisoan oinarrituta ikuspegia aldatzeko aukera emateko. Konpromiso hori hartzeko garaiak eta zehazteko formak erabaki ziren.

Azken emaitza txosten bat izatea nahi genuen, eta batzuetan ikerketaz aritzen ginen. Produktu fisikoa dokumentu hau da. Parte hartu dugunok ikerlariak ez garenez, mugak ditu. Halere, datuen eta lekukotzen bitartez, eskubide-urraketaz beteriko errealitate bat agerian jartzen saiatzen da. Errealitate horretan, eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak hausten dira. Ondorioz, hura salatzen eta ezagutzera ematen jarraitu beharra dago. Izan ere, gauzei izena eman, ikusarazi eta aurpegia jarri behar zaie konponbideak emateko. Hain zuzen ere, zenbait eremutik etengabe atzeratu nahi dituzten konponbideak, beren rol politikoak pertsonen, familien, eta, kasu honetan, herri oso baten bizitzari eraginik egingo ez balie bezala.

PROZESUA

Jarraian, azken hiru urteetan zehar egindako prozesuaren etapak deskribatuko ditugu:

Mendebaldeko Saharako Giza Eskubideen Laborategia – 2013. urtea

2013an, Arabako SEADen Lagunen Elkarteak EL KARAMA - Mendebaldeko Saharako Giza Eskubideen Laborategia¹ sortu zuen. Proposamen hori pentsatu zen giza eskubideenganako gazteen konpromiso aktiboa sustatzeko. Hala, elkargune bat eskaini zen ideiak eta jakingurak partekatzeko eta arlo horretan jarduketa-ekimen jakinak garatzeko. Sormenezko ekimenak eragin nahi ziren eraldaketarako hezkuntzaren alorrean. Ekimen horiek gazteengandik sortu behar ziren, errespetuaren eta giza eskubideak sustatzearen ikuspegitik.

Laborategi horren lan guztiak hiru ardatz izan ditu: feminismoa, baliabide naturalak eta eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak. Apirileko asteburu batean zehar, Euskal Herritik, saharar errefuxiatuko biztanle-kanpamentuetatik, lurralde okupatuetatik eta Espainiako Estatuko beste toki batzuetatik zetozen gazte taldeek taldean lan egin zuten hiru ardatzen inguruan, lantegi bakoitza dinamizatzen pertsona baten laguntzaz. Ardatz bakoitzak lan-proposamen bat garatu zuen, eta, azken egunean, gainerako taldeekin partekatu zuen.

Parte-hartzaile guztien artean, eskubide ekonomikoei, sozialei eta kulturei (EESK) buruzko ardatzak aurkeztutako proposamena lantzea erabaki zen, zehazki, Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan EESK-er buruzko egoera ikertzeko brigadek proposatutakoa. Lurraldean daturik ez zegoenez, taldea kezkatuta zegoen eta aukera eman zuten lurraldearen errealtatea salatzen.

Lan ugariko asteburu horren ostean, Arabako SEADen Lagunen Elkarteak berri ere aztertu zituen proposamen guztiak, azkenean, ikerkuntza-brigaden inguruko proposamena abian jartzeko. Alde batetik, proposamen horrek aukera eman zuen landutako beste bi ardatzak (feminismoa eta baliabide naturalak) batzeko. Beste alde batetik, proposamen hori epe luzerakoa zen eta ahalbidetzen zuen inplikaturako pertsonak parte hartzeko aukerei arreta emateko eta etapa berriak diseinatzen joateko, planteatuz gero.

¹ <http://laboratorioddhh.info/>

Giza eskubideen laborategia: Mendebaldeko Saharako EESKen egoerari buruzko ikerketa. Prestakuntzako eta ikerkuntzako gazte lantaldeak - 2014. urtea

Eraldaketa-ekimena honako honetan gauzatu da: *giza eskubideen laborategia: Mendebaldeko Saharako EESKen egoerari buruzko ikerketa. Gazteen prestakuntzako eta ikerkuntzako talde-lana*, prozesuan parte hartu duten guztiek *Ikerkuntza Brigadak* izenarekin ezagutzen dutena.

Ikerkuntza-brigadak abian jarri ziren taldeak lehen etapan xedatutako forman. Talde eragile bat sortu zen, Euskal Herritik lana antolatuko zuena, eta tokiko talde bat ere bai. Azken hori Mendebaldeko Saharan egongo zen, eta biak erabat koordinatuta egongo ziren.

Talde eragile hori zazpi pertsonaz osatu zen: Ainize Gómez eta Markel Aldai, Maje Girona, Miren Ogando, Santiago Gimeno, Idoia Landaluce eta Jesus Garay. Tokiko taldea Equipe Media taldeaz osatuta zegoen².

Talde eragileak Hassana Aaliaren, Josu Narbarteren eta Ibon Iturrioren zenbait lan-saio izan zituen.

Laneko zenbait hiletan zehar, talde eragile horrek **1. fasean** (*dokumentazio-fasea*) izenekoan egin zuen lan, hiru batzordetan antolatuta: Osasunerako Eskubideei buruzko Batzordea, Hezkuntzarako Eskubideei buruzko Batzordea eta Lanerako Eskubideei buruzko Batzordea.

Batzorde bakoitzak hiru eskubideei buruzko testuak eta dokumentuak berrikusi zituen, bai eta Nazio Batuen Sistemaren nazioarteko testuak, Marokoko administrazioak eraturako dokumentuak, Aldizkako Azterketa Unibertsala³ eta CEDAWen (EKDEB euskaraz) dokumentuak⁴ ere.

Proiektuaren lehen hiletan, dokumentazio-prozesuan talde eragilearen kide guztiak ohitu ziren lan-iturri eta metodologiara. Egokitzeko prozesu horretan batzordeek linean egiten zuten lan, eta, ondoren, informazioa partekatu eta

² Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetako komunikabide-aktibista taldea. Komunikabide-aktibistak dira, beren komunikazio-lana egiteko, informazioaren teknologia berriak eta lineako informazio baliabide berriak erabiltzen dituzten giza eskubideen aldeko aktibistak direlako.

³ Nazio Batuetako Estatu Kide guztien giza eskubideei buruzko espedienteen azterketa jasotzen duen prozesu berezia.

⁴ [Emakumeen kontrako Diskriminazio era guztiak Ezabatzeko Konbentzioa](#) (CEDAW, ingelesezko siglak)

zalantzak eta gogoetak aipatzen zituzten talde eragilearekin egindako aurrez aurreko saioetan.

Dokumentazioko lehen fase hori 2014ko abenduaren 19an eta 20an amaitu zen. Egun horietan lan-saio intentsibo bat egin zen, eta, haren bitartez, lan-ardatz komun bat sortu zen aztertu beharreko hiru eskubideentzako. Honako hauek barne hartzen zituen: lotutako organismoa edota errelatoriak, testuak, marokoar estatuaren konpromisoak, garapen teorikoa, marokoar iturriak eta Nazio Batuen testuak. Fase horrek laguntzako bi saio izan zituen. Lehena Arantza Chacónek dinamizatu zuen, eta Nazio Batuen Sistemari eta proiektuetan genero-ikuspegia txertatzeari buruzkoa izan zen. Bigarrena Carlos Vichesek dinamizatu zuen, Nafarroako Unibertsitate Publikoko soziologoak. Saioa gizar-te-iker-kuntzarako oinarri metodologikoei buruzkoa izan zen.

Une horretatik aurrera, **2. fasea** (dokumentazio-fasearen jarraipena) hasi zen. Hartan, talde eragileak aurrez xedatutako alderdi guztien inguruan lan egiten jarraitu zuen, eta, fase horren bidez, lanaren ardatza osatu zen.

3. fasea 2015eko martxoaren 6ko, 7ko eta 8ko asteburuan egindako lanaren bidez egin zen. Egun horietan lan-saio ireki bat egin zen, talde eragileak dinamizatuta. Euskal Herriko hogeita hiru gaztek parte hartu zuten, ekimena sortu zen Giza Eskubideen laborategian egon zirenek. Horiez gain, tokiko taldeko pertsonak parte hartu zuten.

Saio horretarako honako helburu hauek planteatu ziren (dokumentu honetan bere garaian planteatu bezala jaso dira):

- Aurreko urtean Mendebaldeko Saharako giza eskubideen inguruko ekimenen laborategian hasitako lanen prozesuarekin jarraitzea.
- Pertsona berriak gehitzea gaur egun egiten ari den lan-prozesuan.
- Gogoetarako eta prestakuntzarako espazio bateratu bat sustatzea, Mendebaldeko Saharako gatazkari buruzko ezagutza handitzeko eta nazioarteko markoa eskubideen ikuspegiaren bidez konfiguratzeko.

Asteburuan zehar prestakuntzako hainbat saio egin ziren, gaian adituan ziren profesionalek, talde eragileak eta tokiko taldeak dinamizatuta:

- Mendebaldeko Saharako gatazka: begirada bat Nazioarteko Eskubidetik.

- Nazio Batuen Sistema: hurreratzea Giza Eskubideen Goi Komisionari-
ra eta Errelatoria Bereziak.
- Gizarte-ikerkuntzarako oinarri metodologikoak: hurreratzea teoria-
tik eta praktikatik.
- Genero-ikuspegia sartzea ikerkuntza-prozesuetan.
- Begirada bat osasunerako, hezkuntzarako eta lanerako eskubideei.
- EESKen errealitatea Mendebaldeko Saharako lurralde okupatueta.

Lan-saioen helburua zen hiletan zehar egindako lan-prozesura gehitzea lurral-
dera bidaiatzeko prest zeuden gazteak, bai eta gazte horiei hil horietan zehar
talde eragileak egindako lanaren berri ematea ere.

4. fasea hasi zen, datuak biltzeko tresnak sortzekoa. Fase horrek lan eta ikas-
kuntza eskatu zuen, bai eta gizarte-ikerkuntzarako oinarri metodologikoen in-
guruan prestatzea ere. Saio horien xedea taldeari laguntzea zen, datuak biltzeko
tresnak eratzeko. Aurrerantzean, tokian datuak biltzean erabili ziren tresna ho-
riek.

Datu kualitatiboak biltzeko bi tresna mota eratzeko egin zen lan:

- elkarrizketa-gidoiak
- eztabaida-taldeak garatzeko gidoi bat

Gerora, lurraldera bidaiatu zuten gazteek erabili zituzten tresna horiek **5. fa-
sean** (bidaiak tokira) datuak biltzeko. Jarraian azalduko dira bidai horiek ze-
hatz-mehatz.

LEHEN BIDAIA:

Koordinazioa-prestakuntza

Lehen bidaia 2015eko urtarrilaren hasieran egin zen. Santiago Gimeno eta Idoia
Landaluce proiektuaren koordinatzaileek bidaia bat egin zuten bi helburure-
kin. Alde batetik, tokiko taldea koordinatzea hezkuntzarako, osasunerako eta
lanerako eskubideei buruzko datuen bilketarekin. Bestetik, tokiko taldearekin
prozesu guztia partekatzea eta taldea prestatzea eskubideen zein gizarte-iker-
kuntzarako metodologiaren inguruan.

Lau egun intentsiboetan zehar, honako gai hauei heldu zitzaizen sei saiotan:

- Nazio Batuen Sistema, saioa giza eskubideak babesten dituzten organismoetan eta errelatorietan (mekanismo bereziak) arduztuta
- Eskubide zibilak eta politikoak zein eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak identifikatzea
- Gizarte-ikerkuntzako metodologia (ikerkuntza-prozesua, teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak)
- Genero-ikuspegia ikerkuntza-prozesuetan
- Lan-hipotesiak egitea tokiko taldearekin (hezkuntzari, lanari eta osasunari buruz)
- Behin-behineko mapaketa hiru eskubideen inguruan lurraldean
- Datuak biltzeko erabili beharreko teknikei buruzko akordioak
- Aurre-galdeketa egitea

Datu kualitatiboak biltzeko, Mendebaldeko Saharara joango zen talde bakoitzaren bidaiaren aurretik, proiektuaren koordinatzaileek prestakuntza-saio bat eman zuten honako alderdiei buruz:

- Bidaien ibilbideak
- Logistika lurraldean
- Segurtasuna
- Gastuen kontrola

BIGARREN BIDAIA:

Osasunerako Eskubidea

Bigarren bidaia martxoan izan zen eta Maje Gironak, talde eragileko kideak, eta Ignacio Esparzak egin zuten.

Gironak eta Esparzak bidai hori egin zuten osasunerako eskubideari buruzko datuak biltzeko. Aldi berean, beren prestakuntza dela medio, aktibisten prestakuntza hobetu zuten gizarte- eta genero-ikerkuntzarako metodologiaren inguruan.

Lehen bidaian zortzi elkarrizketa eta eztabaida-talde bat egin zituzten guztira. Elkarrizketa-taldea tokiko taldeak dinamizatu zuen erabat, eta horretarako prestatua izan zen alde aurretik.

HIRUGARREN BIDAIA:

Hezkuntzarako Eskubidea

Datuak biltzeko hirugarren bidaia Yeraï Peñak eta Julen Ormaetxeak egin zuten ekainean. Aldez aurretik biak izan ziren Barriako prestakuntzan. Hezkuntzarako eskubideari buruzko datuak bildu zituzten. El Aaiuneko, Mendebaldeko Saharako hiriburuko, datuak biltzeaz gain, Ormaetxea eta Peña zenbait egunez egon ziren Agadiren (Maroko).

Hamabost elkarrizketa eta eztabaida-talde bat egin zituzten guztira. Elkarrizketa-taldea tokiko taldeak dinamizatu zuen erabat, eta horretarako prestatua izan zen alde aurretik.

LAUGARREN BIDAIA:

Lanerako Eskubidea

Laugarren bidaia uztailan izan zen eta Miren Ogandok, talde eragileko kideak, Adrian Aginagaldek eta Eneritz Azkuek egin zuten. Hiruak izan ziren Barriako prestakuntzan.

Mendebaldeko Saharako lan-eskubideen egoerari buruzko datuak bildu zituzten, eta, horretarako, sindikalistei, abokatuei eta zenbait sektoretan lan egiten duten pertsoneri egin zizkieten elkarrizketak. Hamar elkarrizketa sakon eta eztabaida-talde bat egin zituzten guztira. Elkarrizketa-taldea tokiko taldeak dinamizatu zuen erabat, eta horretarako prestatua izan zen alde aurretik.

BOSGARREN BIDAIA:

Ebaluazioa

Azken bidaia 2015eko urrian izan zen, eta Ibon Iturriozek (prozesu osoan zehar talde eragileari lagundu zion zeregin zehatzetan), Idoia Landalucek eta Daniel de Ayalak egin zuten. Bidaiaren helburua zen tokiko taldearekin ebaluatzea unera arte lurraldean egindako lan-prozesu osoa (tokiko prestakuntza, Barriako prestakuntza, logistika, datu kualitatiboak eta kuantitatiboak biltzea). Topaketan bigarren fasean lan egiten hasi ziren, proiektuak hasieratik aurreiku-

sita zuena. Haren bitartez, Mendebaldeko Saharako bizi-mailari eta kultura-eskubideei buruzko datuak bildu ziren.

Azken fasean, datuen sistematizazioa, testigantzen transkripzioa eta itzulpena, eta informea egin dira, datuak jakinarazteaz gainera, bizitako esperientziak, datu gehiago biltzeko ezintasuna eta azken urteetan bildutako ikasketak eta ezagutzak jakinaraziz.

Datu kualitatiboen bilketaren laburpena:

ESKUBIDEA	EGINDAKO LANA
Osasunerako Eskubidea	8 elkarrizketa sakon 1 eztabaida-talde
Hezkuntzarako Eskubidea	13 elkarrizketa 1 eztabaida-talde
Lanerako Eskubidea	9 elkarrizketa 1 eztabaida-talde

ESKUBIDEA	ELKARRIZKETATUEN PROFILA
Osasunerako Eskubidea	<ul style="list-style-type: none"> - Osasun-arloko emakume profesionala - Dialisien gizon teknikaria - Emakume herritarra (2) - Zabarkeriaren biktimaren familiako kidea - Gizon herritarra (2) - Emakume herritar gaztea
Hezkuntzarako Eskubidea	<ul style="list-style-type: none"> - Prestakuntza kualifikatuko ikaslea - Lehen hezkuntzako 5. mailako emakume irakaslea - Batxilergoko irakaslea - LHko ikaslea - Batxilergoko ikaslea - Lehen hezkuntzako 1. mailako emakume irakaslea - Bigarren hezkuntzako administratzailea eta irakaslea - Bigarren hezkuntzako mutil ikaslea - Bigarren hezkuntzako neska ikaslea (2) - Unibertsitateko neska ikaslea - Ama gaztea - Unibertsitateko mutil ikaslea

ESKUBIDEA	ELKARRIZKETATUEN PROFILA
Lanerako Eskubidea	- Arrantza-sektoreko langilea
	- Sindikatuak
	- Langilea, meatzaritza-sektorea
	- Langabezian dagoen neska gazte tituluduna
	- Espresoa eta langabetua
	- Gizon taxilaria
	- Lau diplomadun langabetua
	- Lana duen etxeko andrea
- Abokatua	

Eskuragarri dauden audioek 18 ordu eta 37 minutuko luzera dute guztira, elkarrizketa sakonez eta eztabaida-taldez osatuak.

Datu kuantitatiboen laburpena:

Biztanleei datu orokorrez galdetu zaie, adinari, sexuari, lanbideari eta bizitokiari buruz. Bai eta hiru eskubideei buruzko gaiei buruz ere. Galdetegiak kodifikatuta daude denak erantzun numerikoekin, datu kuantitatiboak lortzeko aukera ematen dituztenekin.

Galdetegiak Mendebaldeko Saharako lau hiri nagusietako biztanleek bete dituzte. Aaiun, Dajla, Smara eta Bojador. Guztira, 95 emakume eta 116 gizonek egin dute, 19 eta 73 urte bitartekoek.

TOKIA	EGINDAKO GALDETEGI-KOPURUA	GIZONAK	EMAKUMEAK
El Aaiún	116	58	58
Smara	7	5	2
Bojador	38	23	15
Dajla	50	30	20



Lanerako Eskubidea

1.1. Hasteko zenbait gogoeta

Hasieran, kapitalismoak beharrak Europatik haratago hedatu zituen, haren eske-
ma politikoa eta ekonomikoa elikatuko zituzten merkatu berriak sortzeko. Hori
konkistaren bidez egin zuen, eta menderatze-politika argia antolatzeko oinarriak
finkatu zituen. Afrikako herriak, amerikarrak bezala, indarraren bidez txertatu zi-
tuen kontzepzio politiko horretan, eta horrek potentzia kolonizatzailearenganako
mendekotasuneko eta murrizketako harremanak eragiten zizkien. Amerikako
konkista eta baliabide naturalen desjabetzea arrakastatsua izan zirela ikusi zu-
tenez, kolonialismo-eredu berdina erabili zuten Afrikako herriei, eta bertako
kulturenak ez ziren produkzio-ereduak sartu zituzten. Testuinguru horretan,
Afrikak Europa aberasteari lagundu zion; eta Europak produkzio-eredu bat ezarri
zuen, geroago erabiltzen jarraituko zena, kolonia-jatorria atzera utzi bazuen ere.

1885ean, Berlingen⁵ afrikar ordezkariarik gabe egindako bilera batean, Euro-
pako potentziek afrikar kontinentea banatu zuten eskuaira eta kartaboia erabi-
liz. Ondorioz, Mendebaldeko Sahara Espainiak okupatu zuen. Okupazio hori

⁵ Berlingo Konferentzia Frantziak eta Alemaniak deitu zuten, eta 1984ko azaroaren 15aren eta 1885eko otsailaren 26aren artean egin zen. Bertan nazio hauek izan ziren: Alemania, Aus-
tria-Hungaria, Belgika, Danimarka, Espainia, AEB, Frantzia, Britainia Handia, Holanda, Italia,
Portugal, Suedia, Norvegia eta Turkia. Afrikako herrialderik ez zen egon.

Bismarck kantziler alemaniarrek antolatu zuen Europako potentzien kontrako interesenga-
tik sortzen ari ziren gatazken aurrean. Europako potentziek Afrikako lurraldea nahi zuten
(Britainia Handiak eta Frantziak, bereziki). Ondorioz, Afrikako kontinentea banatu zuten.
Beraz, kongresua baino lehen, europarrek kostaldeak bakarrik okupatzen zituzten, baina XX.
mendearen hasieran Afrika erabat banatuta zegoen Europako potentzien artean, eta bi estatu
bakarrik zeuden europar mendekotasunetik libre: Liberia eta Etiopia.

ez zen 1934ra arte gauzatu, baina Espainiak lurraldea erabili zuen baliabide naturalak ustiatzeko, eta 1963an munduko fostafo-erreserbarik handiena aurkitu zuen kolonian. Europako beste potentzia batzuek bezala, Espainiako Erresumak indarrez ebatsi zituen baliabideak metropolietan erabiltzeko, eta, Afrikako zoruak eskaintzen zuenari esker, aberastu egin zen. Saharako ekonomia, hortaz, kontinente osoan nagusi zen ustiapen-eredu berdinen eraginpean geratu zen. Hain zuzen ere, bertan egindako arpilatzearen atzean potentzia handiek kontinenteko aberastasun bikainean zuten interesak zeuden. Afrikako lur-azpian, mundu osoko kromo erreserbaren % 95 dago, platinoaren % 85, banadioaren % 60, diamanteen % 80, manganesoaren eta urrearen % 50, fluoritaren % 45 eta uranioaren, kobaltoaren eta antimonioaren % 25⁶.

Testuinguru hori beharrezkoa da saharar ekonomia baldintzatuta egongo dela ulertzeko, eta, ondorioz, biztanleek duten lan-egoera ere bai; izan ere, Europako herriek gauzatutako ekintza kolonial berdina erabili du Marokok. Europako metropoliek lurraldea usurpatzeko eta baliabideak ustiatzeko erabiltzen zituzten (eta erabiltzen dituzten) arauak bere egin zituen, eta haren laguntzarekin mantendu egin ditu Espainiak lurraldea utzi zuenetik. Esan bezala, lurraldea utzi zuen, baina Sahara ez zen benetan deskolonizatu, eta horrek bidea ireki zion Marokori lurraldea legez kanpo okupatzeko. Rabateko gobernuak ez zuen bat egin 1960ko hamarkadan sortu zen Afrika deskolonizatzeko prozesuarekin, ez zuen harekiko elkartasunik izan eta ez zion lagundu. Gainera, Amerikako Estatu Batuen eta Frantziaren laguntza jaso zuen, Mendebaldeko Sahara berriz kolonizatzeko. Gerra hotzaren garaian, sobietarrek armak eman bazizkieten ere sahararrei beren lurak defendatzeko, eta geroago, NBEk saharar herriaren etorkizuna erabakitzeko erreferendum bat egin behar zela azpimarratu bazuen ere, Mendebaldeko Sahara Afrikako azken kolonia bihurtu zen (Espainiak ez baitzuen lurraldea ofizialki deskolonizatu). Marokok okupatu zuen legez kanpo, eta inperialismoa errepikatu zuen okupazio-forman.

1.2. Nazioarteko zuzenbidea eta barne-legeria: erreferentziako markoa

Lanaren Nazioarteko Erakundea

1979tik, Versaillesko Itunaren ondorioz, kontrolerako mekanismo bat sortu zen, estatuek oinarritzko lan-eskubideak bete zituzten. Zenbait bileraren ostean,

⁶ BATA, C. (2011). El África de Thomas Sankara. Tafalla: Txalaparta Edizioak.

Lanaren Nazioarteko Erakundea (LNE) sortu zen, estatuen, ugazaberiaren eta sindikatuen ordezkariak biltzen zituen hiru alderdiko egiturarekin. Langileek, sindikatuek eta enpresek finkatu zituzten jarraibideak, lan-eskubideak betetzen zirela bermatzeko. Bestalde, lau helburu estrategiko sortu zituzten. Horrela, lehenetasuna eman zieten hiru alderdintasuna eta elkarriketa soziala hobetzeari, gizarte-segurantza unibertsalaren estaldura hobetzeari, enplegu-aukerak eta diru-sarrera duineko lan-arauak sortzeari eta helburu eta informazio horiek sustatzeari eta betetzeari. Horretarako, aldizkako kontrolerako mekanismoak eta prozedura bereziak sortu ziren, hala nola kexak eta erreklamazioak. Horiek denbora igaro ahala diseinatu ziren. Halaber, laguntza teknikoak eta azterketa orokorrak garrantzia hartuz joan ziren.

LNEk, estatuek oinarritzko lan-eskubideak errespetatzea eta sustatzea suspertzeko eta bermatzeko xedez, lan duinerako eskubidearekin lotutako funtsezko alderdiak arautzeko zenbait hitzarmen egin zituen. Lan-baldintzak hobetu direnez, hitzarmen batzuek balioa galdu badute ere, 189 hitzarmen horietako zortzi funtsezkoak dira gaur egun. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalarekin, hitzarmen horiek lan-eskubideen edukia arautu zuten.

Lanerako Eskubidea aitortzen duten giza eskubideei buruzko nazioarteko itunak

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak barne hartzen du lan-eskubideen multzoa, hala nola: lanerako eskubidea, esklabotzaren eta zortasunaren debekua, nahitezko edo derrigorrezko lanaren debekua, desenpleguaren aurkako babesa, diskriminazioaren debekua enpleguaren eta okupazioaren arloetan...

Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Ituna, Nazio Batuen Asanblada Nagusiak egina 1966ko abenduaren 16ko 2200A (XXI) erabakiaren bidez. Indarrean sartu zen 1976ko urtarrilaren 3an.

- Lan-baldintza ekitatiboak eta egokiak sindikatuak sortzeko eta haietara afiliatzeko eskubidearekin (6., 7. eta 8. artikulua).
- Gizarte-segurantza (9. artikulua)

Lanaren Nazioarteko Erakundearen Hitzarmenak - LNE

- 29. hitzarmena, nahitaezko lanari buruzkoa, 1930ekoa
- 87. hitzarmena, sindikatu-askatasunari eta sindikatzeko eskubidea babesteari buruzkoa, 1948koa
- 98. hitzarmena, sindikatzeko eskubideari eta negoziazio kolektiboari buruzkoa, 1949koa
- 100. hitzarmena, ordainsarien berdintasunari buruzkoa, 1951koa
- 105. hitzarmena, nahitaezko lana desegiteari buruzkoa, 1957koa
- 111. hitzarmena, diskriminazioari buruzkoa (enplegua eta okupazioa), 1958koa
- 138. hitzarmena, gutxieneko adinari buruzkoa, 1973koa
- 182. hitzarmena, haurren lanaren forma txarrenei buruzkoa, 1999koa

Dagoeneko aipatu denez, LNEk lortu nahi du hitzarmenak berretsi dituzten estatuek lan-eskubideak errespetatu dituztela. Hitzarmen horiek kontrolerako mekanismoak gehitzen dituzte. Edonola ere, LNEk ez du eskumenik testua betetzen ez dutenak zehatzeko. Aldez aurretik aipatutako zortzi hitzarmenen garrantzia azpimarratu da, baina, nolana ere, estatu subiranoen nahiaren eraginpean daude. Estatu horien derrigorrezko edukia bere gain hartzen dute hitzarmenak sinatuz eta berretsiz.

Marokok ez du 87. hitzarmena berretsi (funtsezko hitzarmenaren bigarrena), sindikatu-askatasunari eta sindikatzeko eskubidea babesteari buruzkoa. Horrek, marokor herritarrei kalte egiteaz gain, sahararengan eragin zuzena du ere bai; izan ere, Marokok erabaki politiko berak aplikatzen ditu lurralde okupatuan, NBEk argi utzi bazuen ere bake iraunkorra garatzeko justizia soziala beharrezkoa zela.

Sahararrak potentzia okupatzailearentzako lan egin eta produzitzen du (bal-dintza txarretan), eskubiderik gabe, ekitaterik gabe eta diskriminazioa jasanez. Marokoko gobernuak oso gutxitan ematen dio marokor langile batek jasotzen duen tratu berdina langile sahararrari. Emakumeen kasuan larriagoa da egoera, diskriminazio bikoitza jasotzen dutelako lan-arloan: saharar nortasunagatik eta emakume izateagatik. Gai horri aurrerago helduko badiogu ere, Aaiun okupatuko langile baten lekukotza garrantzitsua da. Emakumeak lau titulazio ditu eta Ma-

rokoko enpresa batean idazkari lanak egitea lortu zuen. Azaldu zuenez, oker batengatik kontratatu zuten. Enpresaren jabeek marokoar neska bat zela uste zuten, marokoar jatorriko izena du eta. Zehatz-mehatz azaldu zuen bertan lanean aritu zen urtea: jazarpenak, irainak, mehatxuak eta sexismoa jasan zituen.

Badakizu zer? Marokoarrek hainbat gauza esaten dizkigute sahararrei. Adibidez, ezer ez dakigula, lan on bat merezi ez dugula... (Zenbait diploma dituen emakume gaztea)

Hark beharragatik iraun zuen han urtebete; haiek, berriz, kontratua sinatu zutenez, ezin zutelako hura amaitu arte kaleratu. Kontatu zizkigun irainak bere nortasuna desegiteko eta emakume izateagatik laidotzeko saiakera islatzen zuten. Bere azentua aurpegiratzen zioten, eta melfa (saharar emakumeek erabiltzen duten jantzia) erabiltzea debekatu ere bai. Gainera, langile maskulinoen aldetik sexu-jazarpena jaso zuen. Egoera hain zen txarra, non langile gehien zeuden orduak saihesten zituen, molestatu eta ukitu ez ziezaioten.

Horri dagokionez, adibide da *esperientzia ugari* lakonikoa, sexu-jazarpenik jasan zuen galdetu zitzaionean beste langile saharar batek eman zuena.

Marokoar emakumeek nortasun-diskriminaziorik jasaten ez badute ere, lan-arloan ez zaie tratu berdinek ematen. 2012an, lan-arloan sexu-berdintasunari buruzko plan bat egin zuen Marokok, lan-arloko desberdintasun handiak murrizteko xedez. Marokoko Erresumak, horrela, Europar Batasunak gainbegiraturako eta finantzaturako estrategia bat egin zuen. Aipaturakoaz gain, gobernuaren plana, IKRAM Plan, alegia, sinatzeko Rabaten egindako ekitaldian parte hartu zuen Europar Batasunak. Hala ere, egindako elkarrizketetan eta eztabaida-taldeetan, ez zuten plan hori ezagutzen. Ondorioz, pentsa daiteke estrategia horrek marokoar biztanleen sektore bati eragiten diola, edo teoriarik bakarrik egin zela, praktikan eraginik sortu gabe.

1.3. Lanerako Eskubidea Mendebaldeko Saharan: sarrera

Elkarrizketatu ditugun pertsonen lekukotzak ez du zalantzarik uzten Mendebaldeko Saharako lan-eskaintzei eta -kalitateari buruz. Haiek guztiak nabarmendu dute baliabide ugari eta lan-aukera gutxi dituztela saharar biztanleek. Beti aritzen dira ezkutuan, tokiko biztanleak jakinaren gainean egon gabe.

Horrela transmititu dute, eta horrela dela ikus daiteke saharar biztanleekin egunerokoa partekatzen duzuenen. Hala ere, erraza da ekonomikoki auto-

nomoa eta aktiboa den Mendebaldeko Sahara imajinatzea. Errealitateak agerian uzten du herrialde abandonatu eta esplotatu bat, arreta ematen baitzaie biztanleenak ez diren interesei. Aaiun hiriaren egitura lotuta dago abando- eta hierarkizazio-irudi horrekin. Marokoarrek auzo eraikiak eta modernoak dituzte, eta, sahararrak, berriz, inguru prekarioetan eta etengabe obretan dauden auzoetan eta etxeetan bizi dira. Gure kideetako batek, beharbada egoerari jarraikiz, esan zuen antza denez badakitela –marokoarrek– ez dutela bertan iraungo betirako. Kalte egin, okupatu eta esplotatzen dute, baina ez dago eraikitzeko asmorik, ez eta hurbileko etorkizunerako ezer finkatzekorik ere. Dena dago erdi abandonatuta, eta etekin zuzena dakarkien hori baino ez dute eguneratzen eta zaintzen. Merkatua arautzen duten legeak eta araudiak diseinatuta daude eta Frantziaren antzekoak dira, baina asmoak besterik ez dira, eta ez dago neurri praktikorik.

Hala eta guztiz ere, administrazioan edo **sektore publikoan** lan egitea da hainbat sahararrek lortu nahi duten helburua. Arlo horretan hobeak dira baldintzak, baina hainbat oztopori aurre egin behar zaio enplegu horiek lortzeko.

Zuzenbideko tituludun naizenez, funtzionario judizial edo abokatu edo epaile izan nahi nuen... Baina Marokon eta bertako erakundee- tan abokatu izateko oztopo ugari gainditu behar direla konturatu nintzen, hain zuzen, oligarkiak eta interes-mafiak inposatutakoak. Ez diote inori uzten postu horiek eskuratzen. Haietako bat ez den inori ez diote uzten lanbide hori betetzea. Oztopoak dira marokoar estatu- a, saharar talderik prestatu nahi ez duena. Nik lortu nahi nuenak ez zuen bat egiten errealitatearekin. (Eztabaida-taldea)

Alde batetik, zaila zaie oposizioen deialdiei buruzko informazioa eskuratzea. Marokon konfiantzako pertsona bat izatea garrantzitsua da, azterketak non eta noiz izango diren, eta horiek nola egin dituzten esan diezaieten.

Oso larria den beste arazo bat da lanpostu publikoen publizitatea. Erakundean lan egiten duen ezagunik ez baduzu, ezin duzu jakin noiz irtengo den deialdia, edo oposizio-prozesua noiz hasiko den. (Eztabaida-taldea)

Bestalde, oposizio publikoak Marokon egiten dira, beren bizilekuetatik kilometro askora. Beraz, kostu ekonomikoa handia da oposizioetara aurkezteko, are eta gehiago proba bat baino gehiago gainditzen badute. Oposizioen gastuak ordaintzea zaila da, eta azterketa zein hautaketa-proba guztiak gainditzea ez da oso ohikoa sahararren artean, proba ondo egin dutela jakinda ere.

*Antolatzen diren oposizio publikoak hemendik ehunka kilometro-
ra egin ohi dira. Ahozko azterketa bat egiteko distantzia luze hori
egin behar duzu Marokoraino, eta, ondoren, emaitzari itxaron behar
diozu. Gaindituz gero, gainera, itzuli behar zara beste azterketa bat
egiteko. Hortaz, distantziaren oztopoa dugu, oposizioak egiten diren
tokia urrun geratzen zaigu eta. Horrez gain, haraino iristeko gastuak
ordaindu behar ditugu, emaitza ona edo txarra den jakin gabe. (Ez-
tabaida-taldea)*

Hezkuntza sektore publiko bat da, eta saharar batzuek lan egiten dute bertan. Baina gehienek Marokon lan egin behar dute, beren jaioterritik urrun.

*Ez dugu ahaztu behar nahitaezko migrazioaren politika inposatzen
zaiela saharar ikasleei eta irakasleei. Adibidez, saharar irakasleek
Mendebaldeko Saharatik oso urrun dauden marokoar eskualdeetan
lan egin behar dute derrigorrez, eta, ondorioz, beren familiari bisita
egin nahi badiete, soldataren erdia erabili behar dute joan-etorriko
garraioa ordaintzeko. Hori marokoar politika bat da, saharar titulu-
dunak beren jatorrizko inguruetatik urruntzeko. (Eztabaida-taldea)*

Deigarria da Mendebaldeko Saharako ikasgeletan diharduten irakasle motekin dagoen desberdintasuna. Jasotako lekukotzen arabera, bertan aritzen diren irakasleek ez dute Lehen Hezkuntzako ikasleak prestatzeko nahikoa mailarik:

*Hona bidaltzen dituzten irakasle guztiak arazoak dituzte. Beren es-
pedienteak oso txarra da. Alkoholismo-arazoak, arazo psikiatrikoak
eta bestelakoak dituzte. Erotuta dauden irakasle guztiak bidaltzen
dizkigute hona, guri, presta gaitzaten. Hortaz, arazoa errotik sortzen
da, gure prestakuntzaren hasieratik. (Eztabaida-taldea)*

Mohamed VI.aren erresumak diseinatzen duen egitura-indarkeriak bi herrien arteko desberdintasunak sortzen ditu, lurraldean okupazio-arauak erabiltzen dira eta. Marokoarrek gobernuak eskaintzen dituen abantailak dituzte sektore publikoan laneratzeko. Sahararrei, berriz, betoa jartzen zaie sektore horretan. Hirugarren bidaiari⁷ egin zen eztabaida-taldeari eta lan duin bat izateko dauden arazoak eta zailtasunak aztertzeari esker, ikusi zen abantaila horiek pertsonen egunerokotasuna markatzen zutela. Parte-hartzaile gehienek ikasketa profesionalak, unibertsitatekoak eta diplomak zituzten, edo selektibitatea gainditu zuten (hezkuntzarako eskubideari buruzko atalean azaldutako oztopoa gor-

⁷ Atal honetako lekukotza gehienak eztabaida-talde horretatik hartu dira.

behera). Adibidez, haietako batek karrera pribatua egin zuen Hassan II Unibertsitatean, eta beste batek Egipton ikasi zuen. Baina eztabaida-taldeak egi-terako unean, parte-hartzaile bakar batek zuen lana. Gainerakoak langabezian zeuden edo aldizkako lan prekarioak zituzten.

Gure gazteak oso ondo prestatuta daude, eta tituludunak ditugu sektore guztietan. (Eztabaida-taldea)

Sektore publikoaren ordezkari aukera da **sektore pribatuko** lan-merkatuan sartzea. Hala ere, lurralde okupatuetan ez dago enpresa-ehun sendorik, ez eta industria finkatu eta garaturik ere. Horrek lotura du behin eta berriz deskribatu diguten abandonu-sentsazioarekin: baliabide naturalei dagokienez aberatsa den ingurua, gutxi batzuen etekinerako arpilatzen dutena. Sentsazio hori argi eta garbi antzeman zitekeen arrantzaren industriako langile bati entzunez gero. Langile horrek, hitzen, keinuen eta aurpegiko itxuren bidez, beren herrialdean bertan erabiltzen dituztela azaldu nahi zuen; bizitzeko lan egin behar dute eta, baina, gainera, beren aberastasun naturalak desjabetzen dituzte beren lanarekin. Eskulan merkea Marokorentzat. Hark negoziatzen du jasotakoaren prezioa herrialde erosleekin. Erosle horiek, Saharako egoera ezagutzen badute ere, ez dira prest agertzen baliabideak mendebaldeko beste merkatuetan baino prezio txikiagoan erosteko. Aurpegian irribarre triste bat irudikatuz, elkarrizketan txantxetan aritu ginen, esanez *Sahara gurasoen hozkailu betea zela, ikasleak husten duena berean ere ezer ez dagoenean.*

Atxilotuta egon zen langabetu baten lekukotzaren arabera, eskulan merkea lortzen dute, hain zuzen ere, diskriminazioari esker:

Haietako gehienak (sahararrak) txirotak dira, pobreziaren atalasearen azpitik daude. Unibertsitateko tituluak dituzte, baina, esaterako, gidari, saltzaile eta abar gisa egiten dute lan [...] Saharar bakoitzak bere istorioa du, soziala, ekonomikoa... Zer egin du ba Marokok? Mezu bat igorri du atzerrira, marokoar kolonialismopean bizi diren sahararrak paradisuari daudela dioten mezua. Hori da mezua, denek dute lana, etxebizitza... Bizitza betea. Atzerritarrek mezu hori jasotzen du bilatu gabe, sahararren inguruan nabigatu gabe. Uste dut sahararren % 50 pobreziaren atalasean bizi direla. Sahararrak etxoletan bizi dira, imajina ezazu, ez dute urrik bizitzeko. Putzu bat besterik ez, ez dute elektrizitaterik... (Atxilotu politiko ohia eta langabetua)

Mendebaldeko Saharan bakarrik lan egiten duten enpresa gehienak marokorrek dira, eta, Marokoko gobernuaren okupazio-politikoari jarraikiz, inguruko baliabideei etekin handia ateratzen diete. Gainera, ez dago kontrolrik,

meatzaritzaren eta arrantzaren sektoreetan baliabideak espoliatzea eta neurri-rik gabeko jardunbideak saihesten duenik.

*Meatzaritzan zein arrantza-sektoreak suntsitzen ari dira. Etengabe, gauez eta egunez, ahal dutena ustiatzen dute. Kontrolik gabe... Egu-
nez eta gauez, etengabe. Horra, portura, joanez gero, izutu egingo za-
rete hainbeste hozkailu eta kamioi geldirekin. Hemendik iparraldera
daraman errepidera joanez gero, ikusiko duzue hozkailuen, atoi-
en, kamioien eta abarren zinta dela [...]. (Fos Bucraa-ko langilea)*

Sektore horietako langileak, eta, batez ere, kargu ertainak eta goi-mailakoak dituztenak, marokoar jatorrikoak dira, eta sahararrek ezin dituzte horiek lortu. Eskulan gisa eta lan txarrenetarako soilik kontratatzen dituzte, erantzukizun handirik gabekoetarako.

*Zergatik? Haiek bezala ikasketak amaitu baditugu, zergatik ez gaude
beren maila berdinean? Diskriminazioa dela eta. (Langabezian da-
goen neska gazte tituluduna)*

*Kategoria handi guztiak dira marokoarrenak. Zuzendariak, ingenia-
riak... Gainerakoetan, eskulanetan eta beste lan hobegoren batean,
adibidez, mekanikoen eta gidarien artea sahararrak daude. (Fos Bu-
craa-ko langilea)*

Ohikoa da azpikontratazioak egitea espezializazio txikiagoko lanpostuetarako. Horrela, langileen baldintzak txartzen dira, soldata txikiak ordaintzen dira eta iraupen txikiak kontratuak egiten zaizkie.

*Nire anaiaren kasua aipatu nahi dut. Goi-tituluduna da, eta fosfatoen
enpresa publikoan lan egin nahi zuen. Jakin zuen enpresa horrek kon-
tratuak sinatzen dituela beste bi enpresa txikiagorekin, kontrata-for-
man. Horrela, langileekiko erantzukizunik ez du inoiz. [...] Kezkatzekoa
da bitarteko enpresek eta kontrata-enpresek langileak hartzea sei hile-
rako, urtebeterako... Eta ez diete ezer ordaintzen lan berdina egiteaga-
tik. Gainera, oso lan gogorrez ari gara. (Eztabaida-taldea)*

Ohikoa da hiri batetik bestera bidaltzea, hau da, lanpostua aldatzea; baita gutxie-
neko soldata baino txikiagoak diren ordainsariak ordaintzea ere. Azken hori ohi-
koa da marokoar langileen artean ere bai, elkarrizketatuek aitortu zutenaz:

*Zenbait langilek ez dute gutxieneko soldata jasotzen, hura baino
txikiagoa baizik. Gainera, ez dira garraioa eta kaleratzeak kontro-
latzen. Pertsona bat lanpostua toki batetik bestera eramateaz ari*

naiz. Adibidez, Casablancan lan egiten badu, Tangerera bidaltzen dute ezer jakinarazi gabe, eskubiderik gabe. (Abokatua)

Inoren konturako zenbait langilek gizarte-segurantza edo osasun-txartela dute, baina ez da oso orokorra. Osasun-prestazioak ez dira egokiak eta nahikoak, planteatu dutenez⁸.

Hainbat kasutan, lanpostu pribatu bat eskuratzeko ezagun bat izan behar duzu lanpostu horren barruan. Hau da, “kutunkeria” enplegu bat lortzen saiatzeko aukera bat da, eta, batzuetan funtzionatzen badu ere, gutxitan gertatzen da eta langileak tratu txarrak eta errepresaliak izango ditu geroago. Batzuek lanpostua uzten dute. Beste elkarrizketatu batzuek gain, zuzenbide pribatuan lizentziatutako neska gazte batek kontatu zuen. Enpresa pribatu batean lan egin zuen hark, baina lanpostua utzi zuen egunero arazo ugari aurre egin behar zien eta. Esate baterako, iseka egiten zioten bere nortasunagatik, eta kobratzen ez zuen lan ugari egin behar zuen. Gainera, aparteko lan hori hari bakarrik bidaltzen zioten, beste lankide batzuek egin beharrekoa bazen ere. Horrela, gehiegikeriak jasateko haren gaitasuna eta indarrak neurtu nahi zituzten.

Ikastetxe pribatu bati zerbitzuak eman dizkion enpresa bateko beste langile baten ideia bera adierazi zuen bere lekukotzaren bidez. Hark enplegua lortu zuen ikastetxean lan egiten zuen ezagun bati esker:

Kideek kexak jartzen zizkioten zuzendariari haurrei hassania aldaerari hitz egiten zuelako eta marokoar azentuarekin hitz egin behar zuelako. Marokoko nazioaren himnoa ere irakatsi behar zien, eta hainbat haurrek ez dituzte haren hitzak ulertzen, baina errepikatu behar dituzte. (Langile bat)

Hainbeste gehiegikeriaren kontakizunen aurrean, salatzeko, antolatzeko edo sindikatzeke aukerei buruz galdetu zitzaie, kolektibo gisa indartsuagoak izateko, eta, egoera aldatzen saiatzeko. Baina gehiegikeria gehiago kontatuz erantzuten zuten, bai eta enpresariak beren boterea erabiltzen zutela adierazi ere. Elkarrizketatuek esan zuten, edozein kexa politiko edo protesta isiltzen dute enpresetan, adierazitako langileez arduratzeko, poliziari deituz. Marokok ez du berretsi LNEaren funtsezko zortzi hitzarmenetako bat, sindikatzeke eta sindikatatuak antolatzeke askatasuna jasotzen duena⁹. Hortaz, antzeko antolakunde-

⁸ Ikus Osasunerako Eskubideari buruzko atala.

⁹ 87. hitzarmena, sindikatu-askatasunari eta sindikatze-eskubidea babesteari buruzkoa, 1948ko uztailaren 9an sinatua San Frantziskon; 1950eko uztailarne 4an sartu zen indarrean. Gaur egun, 153 herrialdek sinatu dute hitzarmena: (http://www.ilo.org/dyn/normlex/es/f?p=NOR-MLEX:12100:0::NO::P12100_ILO_CODE:C087)

rik ikusten badute, zigorrak ezartzen dituzte, eta langileek ezin dute LNEaren hitzarmenak beren defentsarako eta babeserako tresna gisa erabili.

Sahararen barruan, sahararrek ez dute eskubiderik sindikatuen eta elkarteen bidez antolatzeko. Debekatuta dago haientzat, marokoarrentzat ere delitu bat delako. [...] Azken urteetan, berresten ari da Maroko, presioarengatik. Baina horietako asko hasieran bakarrik berretsi dira. Arazoa ez da berrestea, burutzea baizik. (Abokatua)

Langile-ikuskatzailerik ez dago, edo ez da ezagutzen¹⁰. Ekintzailearentzat ere ez dago pizgarririk. Alde batetik, zaila da horiek egotea ez baitago horien aldeko politikarik. Bestetik, oztupoak jartzen dizkietelako. Lekukotzen arabera, polizia nabarmentzen da negoziotetan edo inguruan, eta horrek bezeroak izutzen ditu. Beste batzuetan negoziokoak ixten ditu, are gehiago aktibista politiko ezagunek egindako negoziokoak badira.

Ibilbide profesionala egin duen abokatu batek kontatu zuen bere bulegoak bezeroak galdu zituela zenbait aldiz, hainbat arrazoiengatik: polizien mehatxuegatik, marokoar kolonoek negozioa itxi zezan egiten zituzten presioengatik edo espioitza-susmoengatik (autoak jartzen zituzten bere bulegoko kalean, bezeroek bere lanaren inguruko informazioa ematen zuten eta bere lanari buruzko bidegabeko ikerketak egiten zituzten).

[...] 2005ez geroztik, epaiketetan aktibista politikoak defendatzen hasi ginenetik, egoera aldatu zen. [...] Okupazio-agintaritzek informazio- eta propaganda-kanpainak egiten dituzte, esanez, abokatu horiek kontratatzen dituen edozein bezerok epaiketa galduko duela, eta epaileek ikusten badute pertsona batek abokatu horiek dituela epaiketa galduko duela. Baina hori ez da egia, guk epaiketak irabaz ditzakegu.[...] Bezeroak asko murriztu dira, lehen ez zelako ezagutzen [...] politika, baita agintaritzek tratatzen diguten moduagatik. Horregatik murriztu dira bezeroak. (Abokatua)

Horren ondorioz, kasurik errazenak bakarrik hartu behar izan zituen, politikarekin loturarik ez zutenak, hala nola dibortzio-kasuak edo trafiko-istripukoak. Bere ordainsariak txikitu behar izan zituen, klase ertain eta txikiko marokoar bezeroen kasuak onartu ahal izateko. Elkarrizketan planteatu zuen eguneroko

¹⁰ Laneko ikuskariaren figura LNEren 81. Hitzarmenean jaso da (1947). Hitzarmen horrek ezartzen du laneko ikuskariak ardura dutela lan-baldintzen eta beren lana bete dezaten langileak babestearen inguruko lege-xedapenak betetzen direla bermatzeko. Baldintza horiek dira, besteak beste, higieneko, segurtasuneko eta enpleguko ongizateko baldintzak.

egitura-indarkeria, hain zuzen ere, berak eta sahararrek jasaten dutena. Ez dute marokoar kolonoen eskubide berdinak. Bere kasuan argi eta garbi ikus daiteke auzitegien erabakietan, kasu bat defendatzen ari zenean, marokoar justiziak hartutako erabakietan. Kontatu zuenez, auzi anitz galtzen ziren sahararra izateagatik, auzi politikoak ez zirenak ere bai. Elkarrizketan ez zen hori aipatu. Eguneroko kontuen auzietan ere gertatzen zen. Adibidez, auto-talketan. Sahararra biktima bazen ere, hark ordaindu behar zuen isuna, istripua eragin zuenari zegokiona.

Horren harira, eztabaida-taldeetako parte-hartzaile batek kontatu zuen nola egiten duten jazarpena negoziotetan:

Nik kiosko edo kafetegi txiki bat nuen, eta bertan egin nuen lan bost edo sei urtez. Zenbait erreforma egin ziren hiriaren azpiegituran, eta kiosko hau kale nagusitik gertu zegoen. Eraisteko erabakia hartu zuten. Erabakiaren atzean zegoen arrazoi nagusia zen, kiosko hau topagune eta bilera-gune bihurtu zela saharar gazteentzat, eta haiek ez zuten horrelakorik nahi. Kiosko hau zen nire diru-sarreraren iturria eta besterik gabe kendu zidaten. Beren erabakiari aurka egitea erabaki nuen, eta hainbat tranpa egin zizkidaten aurrerantzean: bezeroen atzetik zihoazen, argia mozten zidaten, ixtera behartzen zidaten... Azkenik itxi behar izan nuen arte. (Eztabaida-taldea)

Saharar emakume autonomoaren edo ekintzailearen arazoei beste bat gehitu behar zaie: emakume izatea. Norbere kabuz lan egiteko aukera oro har ez dute aintzat hartzen elkarrizketatutako emakumeek. Gobernu okupatzaileak jarritako oztopoez gain, kultura patriarkalaren oztopoak daude; eta kultura horrek planteatzen du emakumeak ezin duela bere kabuz aurrera egin lan-eremuan. Gure gizarteetan irakasten den genero-gutxiagotasunaren ideiatatik ez ezik, patriarkatuak diseinatutako tresna guztien eragina dago, eta horiek emakumea laneratzea asko zailtzen dute. Ondorioz, gurekin hitz egin zuten emakume gazte asko ez dira lan-merkatuaren parte, eta etxeko eta zaintzako lanak egiten dituzte kobratu gabe.

Enplegua berpizteko neurri politikoen artean, Marokoko gobernuak txartel bat ematen du, eta horrek unera arte azaldutakoarekin lotura handia dauka eta ekimen pribatuari edo sektore publikoan sartzeko interesari eragiten dio. Elkarrizketatuek azaldu dutenez, txartel horrek (100 eta 150 euro artean dagozkio – kantitate horrek ez ditu betetzen eguneroko gutxieneko gastuak–) eragin ditu “mamu-lanak” edo lan egin gabe kobratzea. Neurri horren ondorioz, gainera, jendeak ordu gutxi lan egiteko joera hartu eta lan egiteko ohitura galdu du. Horregatik asko kostatzen zaie lanaldi oso bat egitea eta lanarekin konpromisoa hartzea. Gainera, txartel baten titularra izanez gero, oposizio batera aurkezte-

ko aukera galtzen da, jadanik diru-sarrerarik dagoela ulertzen dute eta. Tresna erabilgarria da sahararrak lan-merkatutik at mantentzeko.

Parte-hartzaileetako batek azaldu zuen ikerketan zehar antolatutako eztabaida-taldeetako batean. Gobernuak hartutako neurri batek eragiten zion kezka aipatu zuen ere bai, saharar-belaunaldi oso bati eragiten zion eta. Ustez lanpostu publiko batean jarri zitzairen, baina ez ziren bertaratu behar, eta horren truke soldata sinboliko bat ordaintzen zitzairen. Neurri hori ondo aztertu zuen gobernuak, eta pertsonen laneratzeari eragiten dio; izan ere, zailtasunak direla medio, soldata hori onartu eta gutxi batzuen etsipena isilarazten dute. Esan zenez, halaber, etorkizuneko belaunaldien nekearekin jolasten dute. Belaunaldi horiek existitzen ez diren lanak hautatzen dituzte (beren gurasoek egin bezala) lan duin batengatik borrokatu beharrean.

Hori egin zuten saharar herriaren elitearekin, emakumeekin eta gizonekin. Politika horrek belaunaldi oso bati eragin zion. Imaginatu gizarte oso bati ekar diezazkion ondorioak.

Sektore bakoitzak berezitasunak ditu, eta horiek aztertzea interesgarria da. Elkarrizketak eta eztabaida-taldeak egin ziren Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan pisu ekonomikorik handieneko sektoreetako profesionalekin eta langileekin. Sektore horiek bereziki garrantzitsuak dira lurraldearen okupazioarekin dituzten loturak aztertuz gero.

1.3.1. Arrantza-sektorea

Arrantzaren sektorean luzeagoak dira lanaldiak. Goizeko seietan hasi eta etxera itzultzen dira arratsaldeko lauretan edo bostetan, astean sei egunez. Oporraldia hilekoa da urtean behin, gehi Pazko-astea. Langile sahararrek, batez beste, 180 euro kobratzen dituzte hilean. Kantitate hori batez besteko soldataren azpitik dago, eta, elkarrizketetan jasotakoaren arabera, ez da nahikoa familia batek dituen gastuak ordaintzeko.

Arrantza-sektoreko langile elkarrizketatuek adierazi zuten ez dutela Gizarte Segurantzarik. Elkarrizketatu batek esan zuen aseguruak duten lau edo bost pertsona bakarrik ezagutzen dituela, hain zuzen ere, buruzagiaren gertukoak. Istripuak gertatzen direnean, langilea ahal bezain azkarren itzuli behar da lanera, erabat berreskuratu ez bada ere. Bestela, familiak diru-sarrerarik gabe geratzen dira. Kontatu zuten kasu baten arabera, langile batek hezur bat hautsi zuen lanpostuan, eskaiola jarri zioten eta bi egun ostean lanera itzuli zen.

Lan-baldintzak enpresaren zuzendaritzaren araberakoak dira, eta orokorrean diskriminatzaileak dira sahararrentzat. Horregatik, ez dute nahi beren lanpostua arriskuan jartzea. Egoera horrek babesik gabe uzten ditu, enpresaren zuzendaritzaren aurrean zein hirugarrenen erasoan aurrean:

Diskriminazioak jasan ditugu kolonoen aldetik, bai eta presioak eta bortxaketak ere, gure lana utz dezagun. [...] Oso toki nabaria da baliabide naturalak daudelako eta sahararrak sartzea saihesten dute beti. (Arrantza-sektoreko langilea)

1.3.2. Meataritza-sektorea

Mendebaldeko Saharako lurraldeko enpresa handienetako bat Fosfatos Bucraa SA da. Espainiaren kolonia garaian sortu zen Bucraako fosfato-aurkikuntza, munduko handienetako bat, ustiatzeko. Hala ere, Espainiak Saharatik ospa egin zuenean, Madrilgo Akordioaren eranskin sekretuetako baten bidez (horiek ez ziren publiko egin urtebete beranduagora arte), enpresaren % 65 Marokori laga zion. Fos Bucraa, elkarrizketatuek deitzen dioten moduan, toki garrantzitsua da saharar baliabide naturalak ustiatzeko. POLISARIO Fronteak defendatu zuen Marokok lurraldea okupatu zuenean, eta 1979tik 1986ra bitartean enpresa-jarduera eten zen. Hala ere, Marokok enpresa osoarekin geratzea lortu zuen, eta Bucraatik fosfatoak desjabetzeko behar ziren aldaketak egin zituen. Horrela, zuzenean ustiatu ahal zituen eta hegoaldeko probintzietatik lan bila (zein Marokoko Gobernuak deituta) iritsi ziren kolonoei lanpostuak eskaini.

Testuinguru horretan, elkarrizketatu batek kontatu zuen bera eta saharar kide batzuk kaleratu zituztela enpresa laga bezain pronto. 27 urteko antzintasuna zuten langileak kale gorrian geratu ziren berrogeita hamar urterekin. Arrazoiak bazekizkiten: beren lanpostuak funtsezkoak ziren enpresaren funtzionamendurako, baina haren zuzendaritzaren konfiantza behar zuten.

Marokok enpresa bere gain hartu zuenean, kaleratuak izan bitartean jaso zuten tratu diskriminatzailea kontatu zuten. Horrela zioten:

Gurekin espainiar funtzionarioak zeuden, hau da, espainiar langileak. Eskubide berdinak eman zizkieten, ordutegi berdina... Ez zieten ezer aldatu. Guri, berriz, ez; tratu bortitza eman ziguten. Hara non! Orduan, ba, horixe... Hainbat eskubide urratu zizkiguten: kategoria-beherapena, soldata-jaitziera, oporraldia murriztea, askoz lanordu gehiago. Zer esango dizut! Asko eta asko, eta, orduan, 50

urterekin, lehen esan dudanez, kaleratu gintuzten. Espainiar batek 67 urterekin hartzen du erretiroa, eskubide guztiekin. Eta haietako inork ez du 25.000 edo 30.000 dirham baino gutxiago kobratzen. Saharar batzuk, ordea, 1.000 dirhamekin hartzen dute erretiroa; hortik gora, 1.000, 2.000 edo, gehienez, 5.000 edo 7.000.

1.4. Sindikalismoa

Marokok sindikatu-askatasunari eta sindikatzeko eskubidea babesteari buruzko 87. Hitzarmena oraindik berretsi ez badu ere, gobernuaren oztopoei aurre egiten dieten mugimenduak edo sindikatu-izaerako taldeak daude. Oro har, elkarriketetan jasotako informazioari helduta, talde horien zuzendariak marokorak dira, Gobernuak kontrolatuta. Ez dira independenteak. Kontatu zutenez, hainbatetan sindikatuak berak salatzen ditu langileak poliziaren aurrean. Langileen protesta kontrolatuta daukate oso, baieztatu zuten.

Marokoar agintaritzek marokoar sindikatuen sukurtsalak sortu dituzte hemen.

Halere, badago saharar sindikatu bat: Saharar Langileen Sindikatu Konfederazioa. Langileen eskubideak aldarrikatzeko sortu zen, eta Saharako lan-egoera salatzen du, Saharan bertan zein kanpoan, bai eta Marokon eta nazioarteko testuinguruan ere. Antza denez, ez da oso ezaguna saharar langileen artean; izan ere, saharar komunitatearen artean, askok sinesten dute saharar sindikaturik ez dagoela errepresioarengatik. Nolanahi ere, espainiar koloniaren garaian talde aktibo eta antolatua zen jadanik:

Espainiar kolonialismoaren garaian bizitza duin baten alde borrokatzen genuen, espainiarren lan-eskubideak izateko. Langileek lan-eskubideak eta baliabide naturalak izateko borrokatu genuen. Mundu osoan bezala. Lan-gabezia salatu genuen. Hemen eta nazioartean. Hainbat euskarri erabili genituen. Manifestazioak, topaketak, egunkariak. Informazioa bidali genien erakundeei. Gure lanari esker, zenbait sindikatuk, hala nola UGTk edo CCOOk kide gisa aitortu ziguten. (Saharar Langileen Sindikatu Konfederazioaren kidea)

Saharar langabetuen kolektiboa, bestalde, oso aktiboa da. Kaleetan ia egunero egiten dituzte manifestazioak, marokoarren okupazio-agintaritzek debekatzen badituzte ere:

Jende gehiena langabezian dago, eta ia egunero egiten dituzte manifestazioak kaleetan. Poliziek jipoitzen dituzte denbora osoan, beren eskubideak aldarrikatzeagatik; beren lurraldean lan egiteko eta bizitzeko eskubidea aldarrikatzeagatik. Arazoak guri eragiten digu, gazteei, baina zaharrei ere bai. (Langabezian dagoen neska gazte tituluduna)

Langabe tituludunen koordinatzaile bat dago, eta kontzentrazioak egin dituzte beti auzoetan eta kaleetan, lanerako eskubidea aldarrikatzeko. Egunero daude manifestazioak kaleetan, baina agintaritzek ekitaldi horiek debekatzen dituzte. (Abokatua)

1.5. Diskriminazioa eta berdintasuna

Nahiz eta testuan zehar ondoriozta daitekeen saharar herriak jasaten duen diskriminazioa Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan, atal honetan elkarrizketatutako pertsonak azaldu dituzten zenbait alderdi aztertu dira, hain zuzen, kalitatezko lan baterako eskubideaz gozatzeari eragiten diotenak.

Oso konplikatu da bertako pertsona batentzako lan-merkatu sartzeari Mendebaldeko Saharan. Are gehiago, tituluak dituzten gazteek berebiziko zailtasunak dituzte lana bilatzeko, bereziki, giza eskubideak publikoki defenditu dituztenek edo defenditzen dituztenek. Zentzu horretan, adierazten dute zerrenda beltz bat dagoela Barneko Ministerioak egin, aurrekari politikoak dituzten pertsonen lan egin ahal izatea saihesteko. Oposizioetara aurkezten den pertsonaren izena eta abizena ikusten dutenean, jatorri sahararrekoa dela ikusten badute, ikertu egiten diote eta “zerrenda beltz” batean begiratzen dute. Pertsonak aurrekari politikoak baditu, ezin du oposizioa sartu. Hori izan zen eztabaida-taldean elkarrizketatutako baten anai baten kasua. Hura lanpostu publiko baten oposizioetara aurkeztu zen, tituluak lortu ostean. Baina haren abizena zerrenda beltzean zegoela ikusi zutenez segituan, oposizioak egiten ari zen lanpostu publikora sarbidea izatea debekatu zioten.

Nire anaiak, adibidez, bi titulu ditu. Lanpostu publiko batera aurkeztu zenean eta bere abizena ikusi zutenean, ez zien onartu oposizio publiko horretara aurkeztea, marokoarrentzako nire familia zerrenda beltz horretan dagoelako aktibista izanagatik. Hor beste kontu batera heltzen gara, eta da marokoar erregimenarentzako arazotsua bazara, lanpostu publiko bat lortzeaz ahaztu zaitezkeela. Nire anaiari esan zioten bere titulua ez zela baliozkoa, nahiz

eta bere titulazioa lanpostu horretara aurkezteko eskubidea zuten tituluen artean zegoen. Lehiaketa amaitu zenean, konturatu zen berak zuen titulu berarekin hamabost pertsona onartu zituztela. (Eztabaida-taldea)

Aktibistak garenez, Marokoko zerrenda beltzean gaude. Nik ez dut sekula lanpostu bat lortuko. Jende askok gobernuarekin egiten du lan, baina ez badituzu babesten, ez duzu lana lortzen. Eta lortzen baduzu, baina ondoren moduren batean okupazioaren aurka agertzen bazara, mehatxu egiten dizute [...]. Adibide mordo bat dago. Nire taldean hiru pertsona baino gehiagok galdu zuten euren lana, soilik giza eskubideen defendatzaile gisa egindako ekintzengatik. (Langabezian dagoen neska gazte tituluduna)

Esate baterako, azaldu dutenez, Hezkuntza ministroak honakoa esan zuen: “prestakuntzan lanposturik garrantzitsuenak segurtasun-zerbitzuen onespenerekin lortzen dira”. Modu horretan, goi karguak langile marokoa-
rek dituzte, eta, ondorioz, sahararrei aurrera egiteko aukerarik ez diete ematen.

Oposaketa publikoetan oinarri politikoa alderdi oso larria da. Nik neronek bizi izan dut hori. Oposaketa batetik kanpo utzi gintuzten azken azterketan. Arrazoiari buruz galdetu genuenean ez ziguten erantzunik eman, baina beranduago jakin genuen gure aktibismo politikoa zela.

Lan pribatuan, aipatu den moduan, sahararrak desabantailan daude, jasaten dituzten baldintzen ondorioz. Honako hauek dira jasaten dituzten kalteetako batzuk: soldata baxuagoak, ez dagozkien lanak egitea, opor-baimen gutxiago, lanera berandu iristeagatik isun handiagoak edo behartutako helmuga urrunak. Emakumea bazara urraketa horiek larriagotu egiten dira, saharar langile emakume askorentzako sexu-jazarpena eta sexismoa egunerokoaren parte direlako, aurretik azaldu den bezala.

Imajinario kolektiboan, saharar langileen, langile emakumeen, inguruko estereotipo batzuk antzeman dituzte. Diotenez, “sahararrak alfer hutsak dira, ez dute goiz jaiki nahi” edo ez dute maila akademiko onik. Begi bistakoa da estereotipoak direla, alferra izatea lan duin baten alde borrokatzearekin bateraezina baita. Errealitateari erreparatzen badiogu, sahararrek dituzten zenbait lanpostu lan fisiko eta gogorrek dira (adibidez, arrantza), eta titulu akademiko bat lortzeak adorea eta lan gogorra eskatzen du, gobernuak sortutako hezkuntza-sistemaren arazoak direla eta.

Gazteen eta emakumeen kolektiboek, esaterako, talde-diskriminazioei aurre egin behar diete, modu espezifikoa eta konkretuan eragiten dietenei, eta gurutzatu egin daitezke, emakume gazteekin gertatzen den moduan: adibidez, lehenik, emakumeak izanagatik diskriminazio espezifikoa jasaten dutenak, eta gazte-baldintza izanagatik jasaten dutenak.

Eztabaida-taldetan, elkarrizketatu edo parte-hartzaile gazteen azalpenek behin eta berriz planteatzen zuten aukeren gabezia hori, lan egiteko adina eduki baino lehenagotik ere. Lan-merkatutako sarbidea ume sahararrek ikasteko dituzten zailtasunek baldintzatzen dute, horrenbestez, lan-merkatura sartzeko aukeretan ondorio garbiak dituzte¹¹.

Bigarren hezkuntzako ikasketak burutu eta gero, gazte sahararrek ez dute babesik goi-mailako ikasketak aukeratzeko garaian, gazte marokoarrek, aldiz, bai. Azken horiek goi-mailako ikasketak aukeratzeko aholkularitza-zerbitzu bat daukate. Horrez gain, ikasle sahararrek karrera jakin batzuetan (medikuntzan, besteak beste) matrikulatzeko eragozpenak dituzte, eta haiek adierazten duteenez, adibidez, lan-merkatua ezagutu gabe aukeratzeko bukatzen dute. Ondorioz, karrera amaitzen lortzen dutenek askotan ez dute non lan egin.

Aditzaera ematen duten beste kexetako bat da lan baterako aukera izateko esperientziaren baldintza. Bukatzen ez den soka bat da, lan-aukerarik gabe inoiz ez dutelako esperientziarik lortzen, eta, era berean, esperientzia beharrezkoa da lan egiteko. Gazteen errealitate hori antzekoa da munduko beste zenbait lekutan, baina okupatutako lurraldeetan, bereziki, gazte sahararrek pairatzen dute egoera hori. Gdeim Izik kanpamentua itxaropen olatu bat izan zen gazteentzat, baina espero zituzten ondorioak gertatu ez zirela ikusi zutenean, etsi egin zuten. Diotenez, porrotaren sentsazioa handiagotzen duen ilusio bat izan zen, haien helburuak ez baitzituzten lortu, ez ziren sozialki baliagarriak, ez zuten lanik, ez lan-bermerik edo etorkizunerako ikuspunturik, ez eta familia bat osatzeko edo familiari eta kausa sahararrari laguntzeko aukerarik ere.

Lan egiteko estrategia gisa, gazte batzuek, haien azentua disimulatzeko gai direnak, sahararrak direla ezkututzen dute inor ez konturatzeko. Emakumeentzako, ordea, konplikatuagoa da. Melfak salatu egiten die, beraz, zenbaitetan beste karga baten moduan bizi ohi dute –nahiz eta kultura- eta identitate-erresistentziaren estrategia kolektiboen parte izateko pentsatu eta aukeratu den-, eta beren generoak dakartzan diskriminazioak gainditzea zaildu egiten da. Melfa kentzeko esaten die, lan egiten uzten ez dielako. Emakumeak defenda-

¹¹ Ikus Hezkuntzarako Eskubidea

tu egiten dira, jantzi horrekin edozein motatako lanak egitea ohituta daudela esanez. Adierazi dutenez, diskriminazio-egintza bat da, emakume sahararren identitate-ezaugarriak saihesteko, eta horretarako, jantzia lan-oztopotzat jotzen dute emakumeentzat.

Aurre egin behar diogun lehen oztopoa diskriminazioarena da. Edoz nor edozein oposiziora aurkezten denean, melfa eramaten badu galtzeko guztiak ditu. Esaten digute jantzi horrekin ezin dugula lan egin. Baina guk etxean probatu dugu, etxeko lanetan, sukaldean, eta abarretan. Jantzia guretzako ez da oztopo bat, baina haiek baiezkoa diote. Aitzakia bat da, besterik gabe. (Eztabaida-taldea)

Hori guztia emakumea izateagatik, duten generoagatik, eratorritako oztopoei gehitzen zaie. *A priori*, emakumeak dira zaintza-lanez, familiaren beharrak zaintzeaz eta etxeko ardurak bere gain hartzeaz arduratuko direnak. Elkarrizketetan, emakume askok diote, anai-arreben artean neska bakarra izanik, haiek geratzen direla etxeko lanak egiten eta familia zaintzen, anaiek ikasi ahal dezaten. Anaiek ikasketak amaitu ostean lana lortzen badute, emakumeak ikasteko aukera du, baina hori horrela izan arren, jadanik ikasgelatik urrunduta urte mordoa igaro ditu, eta, ondorioz, berriz ikasteko motibazioa zaildu edo deuseztatu egiten da (Marokoko Gobernuak sortzen dituen zailtasunez gain).

Gobernuak langile sahararrei eginiko zenbait diskriminazio- eta inposaketa-modu deskribatzen dira, esate baterako, zenbait lanpostutan marokoar himnoa abesteko beharra edo sahararra izateagatik lanposturako betoa jarrita izatea. Horrez gain, beste hainbat eta hainbat kalte jasotzen dituzte, herri sahararra ahultzea eta beren lurrak kentzea helburu dutenak. Horien artean, elkarrizketatutako emakumeek diotenaren arabera, izaera sexistako zenbait aipatzen dituzte, langile emakumearenganako egiturazko indarkeria matxista baten ezaugarri gisa. Emakume langileak, hain zuzen ere, diskriminazio hirukoitza jasaten du: lehena, langile-klasearen parte izateagatik, hala, lanpostuetan bere lan-indarra saltzera behartuta dago, eta lanpostu horiek gehienak maskulinizatuta daude, eta kasu batzuetan eraso sexistak izaten ditu; bigarrena, sahararra izateagatik, marokoarrek identitatearen eta kulturaren aldetik emakume langilea ezereztu egiten du; eta azkena, emakumea izateagatik eta gizarte patriarkatu batean bidea egin behar izateagatik, non emakumeari jaiotzetik oztopatu eta sailkatu egiten zaion bere generoan.

Gehienek bat egin zuten melhfarekin erlazionatutako oztopoekin eta erasoekin, hala nola umiliazioarekin, jantzitik indarrez tiratzearekin eta jantzia bera eramateko debekuarekin. Etengabeak dira ere eraso sexistak, mehatxuak eta irainak, adibidez, haien gorputzarekin edo kulturarekin lotutako umiliazioak

jende guztiaren aurrean edo emakumeen gorputzaren zatiren bat eustea edo ukitzea. Halaber, aditzera eman dute emakume langile batek salaketak jarri zituela kolono edo enpresa beraren aurka poliziaren aurrean, eta azken horiek indarkeriarekin erantzun ziotela. Bestalde, poliziak emakume militante eta langileei hainbat alditan torturatu zien emakume horien saharar ekintzen berri izan eta gero, edo bestela, beste edozein arrazoirengatik pertsegitzen zitzairen lekuren batean atxilotuak izan arte. Horren ostean, emakume askok kontatu dute beren lana utzi behar izan zutela, zenbait kasutan sexualki bortxatuak izanagatik (poliziaren eskutik jasotako tortura gisa).

Dokumentuan zehar aipatu dira eskubideak eta horien urraketak (militante aktiboa izanagatik, giza eskubideen defendatzailea) gozatzearen eta saharar herriaren kausaren arteko harremanak. Testigantza batzuk modu argi batean islatzen dute hori. Hala, preso politiko batek bere bizitza kontatu zuen lanaren elkarrizketa zailenetako batean. 1992ko Infatadaren osteko atxilotuetako bat izan zen. Sei hilabete egon zen isolamendu osoan, kanpoko ezerekin, ezta familiarekin ere, kontakturik izan gabe, eta tortura psikologiko eta fisiko baten menpe. Libre utzi bazuten ere, eskubiderik eta epaiketarik gabe, sei hilabeteren ostean indar okupatzaileek ez zioten utzi ikasten 2002ra arte. Marrakexera bidaiatu zuen libreki ikasteko eta soziologian lizentziatzeko “guztetzako ikastea oso garrantzitsua baita, borrokatzeko modu bat da, Marokok gu ezikasiak izatea nahi baitu”, dio.

Hala eta guztiz ere, beste preso ohi politiko batzuentzat bezala, ezinezkoa zaio lan egitea. Haren ekintza politikoa zigortu egiten dute, ondorioz, lanpostu batera sarbidea izatea saihesten diote. Independentziaren alde borrokatzen duten aktibisten kontra Gobernuak erabiltzen duen diskriminazio sistematizatua da. Azalpen bat horrela amaitzen da:

Pertsona gazte eta tituludun batek ere, aurrekari politikorik izan gabe, zailtasun asko ditu. Marokok milaka kolono bidali ditu sahararrentzako izan beharko luketen lanpostuak betetzeko. Baina, azkenean, postu horiek lapurtzen dituzte eta bertako herritarrei horietara betoa jartzeko diete. Horrenbestez, preso ohi politikoak kontziente dira zeri egiten dioten aurre, beste diskriminazio-neurri bat da, oro har, kolonialismo-politika bat. (Preso ohi politiko sahararra)

Kaleratze desegoki bat eragiten duten arrazoiak gorabehera, hau da, izan arrazoi etnikoengatik, politikoengatik edo langilearen aktibismo ezagunarengatik, ez dira sekulan idatziz komunikatzen, irregulartasunaren eta diskriminazioaren frogarik ez uzteko. Elkarrizketatutako zenbait pertsona egoera horretan zeuden haien aktibismoarengatik. Bizirauten badute gizarte-sareari

esker da, lagunez eta familiarterkoz osatutako babes-sareari esker. Askotan, pertsona horietako askok emigratzea erabakitzen dute, batez ere, jasaten duten lanerako eskubidearen urraketaren ondorioz eta, bestalde, deskribatutako politika edo praktiken ondorioz saharar familiek duten pobrezia eta pobretzea atzean uzteko.

Erretiroa ere bada saharar herria txirotzeari zuzendutako politika horien adibideetako bat. Gaur egun kobratzen den erretiroaren ordainsaria, gutxi gorabehera, 40 euro da. Ohikoa da familia guztiak ordainsari horrekin bizi behar izatea, baina kopuru hori familia bateko gastuei aurre egiteko ez da nahikoa.

Horrek guztiak eragina du Mendebaldeko Saharako kulturen; izan ere, diru-sarrerarik gabe gazteek ezin dute ikasi edo ezkondu eta familia bat osatu, besteak beste. Etorrizun-itxaropenik ez ikusteak eragina du langabetuen animoan eta haien erresistentzia-gaitasunean. Modu horretan, ohituretan aldaketak egin behar izaten dira, nahiz eta elkarrizketatutako pertsonak adierazi duten, oro har, saharar kausarekin konpromisoa dutela, baita haien herria aste uztearekin ere.

1.6. Ondorioak eta oharra

Kapitulu honetan jasotako testigantzen bitartez, jakitera ematen da Mendebaldeko Saharan lanerako eskubideari bide ematen dioten lan-eskubideak etengabe eta modu ezberdinean urratzen direla. Eskubide horiek urratzearen ondorioz, laguntza ematen zaio pobretutako biztanleria-poltsa handien belaualdiari, eta horiek, hain zuzen ere, eskulan merke gisa balio dute okupatutako Mendebaldeko Saharan dauden enpresa pribatuentzat, baita zerbitzu publikoek azpikontratutako edota aldizkako lan-eskaerentzat.

Marokok lanerako eskubidea arautzen duten nazioarteko zenbait hitzarmen ez berresteagatik eta indarrean daudenak ez ezartzeagatik, eskubide hori urratze-ko aitzakia ezin hobe suertatzen da.

Marokok aplikatutako lan-legeria Mendebaldeko Saharan oso ahula da, ondorioz, egiturazko indarkeria areagotzen da. Indarkeria hori gurutzatu eta indartu egiten da Mendebaldeko Saharako herria ekonomiarentzako bereziki sentikorrek diren sektoreetatik kanpo uztearen politikarekin, esate baterako, lurraldeko baliabide naturalak eta ondasunak espoliatzen dituzten industrietatik eta administrazio publikoko erdi karguetatik eta goi karguetatik. (Jasotako testigantza baten arabera, Hezkuntza ministroak honakoa esan zuen: *“prestakuntzan lanposturik garrantzitsuenak segurtasun-zerbitzuen onespenerekin lortzen dira”*).

Nahiz eta unibertsitate-hezkuntza izateko ahaleginak egin diren, saharar gazteek lanpostu egoki bat aurkitzeko aukerarik ez dute; izan ere, hobeto ordaindutako eta ardura gehiagoko lanak marokoarrentzako gordeta daude. Horrez gain, erregimenaren politikari aurkarien zerrenda beltzak daude, baita, salatzen dutenaren arabera, “nepotismoz” karakterizatutako sistema ustel bat ere.

Modu horretan, ez dira aintzat hartzen pertsonen gaitasunak, baizik eta okupazio-politika marokoarraren menpe jartzea –edo, behintzat, saharar herriaren identitatearen edo eskubideen alde ez agertzea-, eta dauden fabore pertsonalen trukaketak.

Elkarrizketatutako pertsonak azaldu dute “mamu-lanak” daudela, eta horiek saharar elitearen “belaunaldi oso bati” eskaini zitzaizkiela. Horrek eta aukeren benetako gabeziak egitura sozialaren hausturari laguntzen diote, baita saharar herriaren identitatearen aldarrikapenaren eta haien eskubideen aldeko borrokaren hausturari ere.

Okupazio-autoritateek bitarteko guztien bidez erresistentzia hori desaktibatu nahi dute, eta horrek adierazten du kultura sahararra definitzen duten identitate-ezaugarriei eraso egiten zaiela, haien hizkuntzatik hasi (hassanía) eta haien jantzi tradizioaletara arte (melfa deritze, eta, oro har, emakumeek mantentzen dute). Identitatea eta generoa saharar herriaren erresistentzien erdigunetako bat bihurtzen dira, eta diana, berriz, autoritateen politika zapaltzaileena. Sexu-jazarpena, melfarekin lan egin ezin dela dioteneko erreferentziak, dialekto marokoarra erabiltzeko presioak... horiek guztiak kultura- eta genero-zapalkuntzaren adierazpenak dira okupatutako lurraldeetan.

Hala ere, saharar gizartean familia- eta gizarte-egitura nabarmendu egiten da bere erresilientziagatik. Solidaritate horri esker, egunero aurre egin behar dieten zailtasun ekonomikoak arintzea lortzen dute. Hori gorabehera, dokumentuan zehar deskribatutako egoerak familien pobretzea eragiten du –elkarrizketatutako batek ziurtatu du saharar herriaren % 50ek pobrezia-atalasearen azpitik bizirauten dutela-. Inposatutako zigor hori saharar herria ekonomikoki eta moralki hondatzeko izan da, baina Mendebaldeko Saharak gogor egitea aukeratu du.

“Nola ez dugu ba borrokatuko hori aldatzeko?”, ikerketan zehar jasotako testigantza bateko interpelazioa da.

Saharar herriak bere eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak defenditu ditu. Eskubide horiek, hain zuzen, bigarren Infitadaren ostean, 2005. urtean, areagotu ziren, eta gorenera iritsi ziren duintasunaren kanpamentuarekin eta

Gdeim Izik kanpamentuarekin 2010ean. Defentsa hori dela eta, zenbait al-daketa lortu dituzte, hala nola langileen sahararren ehuneko hobetzea Fos Bucraan. Dena den, ikerketa honetan bildutako testigantzen arabera, aldaketa txiki horiek “atzerrira begira” egin dira, erregimen marokorren irudia garbitze aldera.

Eguneroko errealitatea diskriminazioz eta errepresioz beterik dago. Haien lan-jardueran inplikazio argiak daude, ondorioz, sahararrek pairatzen dituzten atxiloketak eta ikerketak oso ohikoak izaten dira, batez ere jarduera politikoari edo sozialari lotuta badaude.

Inplikazio horiek lanerako eskubideaz haratago doaz; izan ere, aktibista sahararrek giza eskubideak larriki urratzea jasan behar izaten dute. Gaia behin eta berriz errepikatzen da jasotako testigantzetan. Salaketa horren ziurtasuna utzi dugu, partekatutako elkarrizketak iraun bitartean hautemandako itoaldiaren bozgorailuak izan gara, nahiz eta epigrafe honi ez dagokion puntu hau luzatzerik.



Osasunerako Eskubidea

2.1. Giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea: erreferentziako markoa

Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Paktua erreferentziako tresna da Giza Eskubideak defendatu eta babesteko Nazioarteko Zuzenbidean. Marokok 1979ko maiatzaren 3an berretsi zuen, Ituna sinatu eta bi urte geroago. Bada, haren 12. artikulua osasunerako eskubideari¹² buruzkoa da, eta horrela definitzen du eskubide hori: «osasun fisiko eta mentalaz ahalik eta mailarik gorenean gozatzeko pertsona guztiek duten eskubidea».

¹² Beraz, Osasunerako Eskubideak oinarritzko eskubide bat osatzen du. Zentzu berarekin jasotzen dute giza eskubideak babesteko nazioarteko beste tresna batzuek (Arraza-diskriminazio Oro Ezabatzeko Hitzarmenaren 5. artikulua; 1984ko Torturaren eta Bestelako Tratu edo zigor Krudel, Anker eta Umiliagarrien Aurkako Hitzarmenaren 14. artikulua; Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 39. artikulua). Halaber, beste eskubide batzuekin, hala nola lanerako eskubidearekin txertatzen da LANEren nazioarteko hitzarmenetan, edo Arraza-diskriminazio Oro Ezabatzeko Hitzarmenean (NBE, 1965) eta Emakumearen Kontrako Diskriminazio-era guztiak Ezabatzeko Hitzarmenean (NBE, 1979).

Osasunerako Eskubidea aitortzen duten giza eskubideei buruzko nazioarteko itunak

- Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala: 25. artikulua.
- Arraza-diskriminazio Oro Ezabatzeko Nazioarteko Hitzarmena, 1965: 5. e) iv) artikulua
- Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Paktua, 1966: 12. artikulua
- Emakumearen Kontrako Diskriminazio-era Guztiak Ezabatzeko Hitzarmena, 1979: 11 1) f), 12 eta 14 2) b) artikulua
- Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena, 1989: 24. artikulua
- Langile Migratzaile Guztien eta Beren Familiako Kideen Eskubideak Babesteko Nazioarteko Hitzarmena, 1990: 28, 43 e) eta 45 c) artikulua
- Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Hitzarmena, 2006: 25. artikulua
- Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Afrikako Gutuna, 1981: 16. artikulua

Lehen definizio horren garapena aintzat hartuz gero, osasunerako eskubideak bizia salbatu, osasuna indarberritu, osasuna mantendu edota sufrimendua arindu nahi du. Beraz, ez gara ari osasuntsu egoteko eskubideaz, baizik eta ahalik eta osasunik onena izatea bermatzeko aukera ematen duten kalitatezko erabakiak eta baliabideak eskura eta erabilgarri edukitzeko eskubideaz. Horrela planteatzen du Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeak (CES-CR, ingeleseko siglak), eta berariaz aipatzen ditu kalitatezko osasunerako eskubidea definitzen duten elementuak.

Osasunerako eskubideak forma eta maila guztietan barne hartzen ditu funtsezko elementu hauek, elkarrekin lotuta daudenak. Horiek aplikazioa parte den estatu jakin batean nagusi diren baldintzen arabera izan da.

- Erabilgarritasuna
- Irisgarritasuna, diskriminaziorik eza; irisgarritasun fisikoa; irisgarritasun ekonomikoa (eskuragarritasuna); informazioa eskuratzea
- Onargarritasuna
- Kalitatea¹³

¹³ EESKen Batzordea, «Ahalik eta osasunik onena izateko eskubidea», 2000/08/11 E/C. 12/2000/4, CESCR 4. ohartarazpen orokorra Ginebra 2000ko apirilaren 25etik maiatzaren 12ra, 8. edukia.

Osasunerako eskubidea, helburuei helduta, giza duintasunaren elementu nagusi gisa osatuta dago, eta ondorioz pertsona guztiena da; eta haren edukiak zenbait jarraibide ezartzen ditu, eskubidea erabat betetzen dela bermatzeko, kide diren estatuek bere egin behar dituztenak. Horrela, osasunerako eskubidea diskriminaziorik gabe **errespetatzeko** (eskubidearen gozamena ez oztopatzea), **babesteko** (beste pertsona batzuek eskubidearen gozamena oztopatzea saihestea) eta **betetzeko** (neurri egokiak hartzea eskubidea erabat bete dadin) beharrei erantzun-go diete.

Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Paktua

2. artikulua

1. Paktu honetako alderdi den estatu bakoitzak, bere aldetik zein nazioarteko laguntza eta kooperazioaren bitartez, ekonomikoa eta teknikoa bereziki, egoki diren neurri guztien bitartez, legegintzakoak barne, pixkanaka hemen aintzatesten diren eskubideak erabat betetzea lortzeko neurriak hartzeko konpromisoa hartzen du.
2. Paktu honetako alderdi diren estatuek, bertan aintzatesten diren eskubideen egikaritzea bermatzeko konpromisoa hartzen dute, arraza, kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, iritzi politiko edo bestelakoa, jatorri nazional edo sozial, egoera ekonomikoa, jaiotza edo bestelako edozein baldintza sozialagatik diskriminatu gabe.

Estatuek zenbait baliabideren bidez egiten dute giza eskubideak betetzen direla bermatzeko jarraipen eta kontrola. Besteak beste, nabarmentzeko modukoak dira Aldizkako Azterketa Unibertsalak (AAU). Horiek, hainbat dokumenturen artean, une bakoitzean aztertzen ari den estatuak testuinguru nazionalan eskubideak errespetatzeari buruzko txostenak aztertzen dituzte. Txosten horiek Nazio Batuetako organismoek eta sozietate zibilaren erakundeek igorritako beste dokumentu («txosten paraleloak») eta informazioarekin osatzen dira. Elkarrizketa irekia mantentzen da parte den estatuko ordezkariekin, landutako gaien inguruan ahal bezain informazio beste lortzen saiatzeko, eta, ondoren, azken ohartarazpenak egiteko. Ohartarazpen horiek egiten ari diren lanari buruzko balorazio positiboak zein kezka eta gomendio egokiak jasotzen dituzte.

Osasunerako eskubideari dagokionez, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturaren Batzordeaz gain, zenbait batzordek ekin diote eskubide horren errespetuari eta babesari; adibidez, Arraza Diskriminazioa Ezabatzeko Batzordeak, Emakumearen Kontrako Diskriminazioa Ezabatzeko Batzordeak (EKDEB) eta Haurren Eskubideen Batzordeak (HEB). Torturaren Aurkako Batzordeak (TAB) arreta eman dio atxilotuek osasunerako eskubidea erabiltzeko aukera izateari, klinika psikiatrikoetan daudenak barne; bai eta torturaren eta sexu-indarke-riaren biktimen errehabilitazioari ere. Gainera, Giza Eskubideen Batzordeak, Torturaren Aurkako Batzordeak, Arraza Diskriminazioa Ezabatzeko Batzordeak, Emakumeen Kontrako Diskriminazioa Ezabatzeko Batzordeak, Langile Migratzaileen Batzordeak, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Batzordeak eta Desagerpen Bortxatuei buruzko Batzordeak salaketak aztertze-ko mekanismo propioak dituzte¹⁴.

Prozedura berezien barruan, hau da, Giza Eskubideen Batzordeak eta Giza Eskubideen Kontseiluak 2006ra arte ezarritako mekanismoen (Kontseilua urte horretan jarri zen abian) barruan, Nazio Batuen errelatore berezia nabari da pertsona guztiek ahalik eta osasunik onena izateko eskubideari dagokionez¹⁵.

¹⁴ Xehetasunetan sartu gabe, mekanismo horiek aukera ematen diete giza eskubideen urratzeen ustezko biktimei itun bati jarraikiz sortu eta eskumena duen organoari salaketa aurkezteko. Organo horrek ondorioak eta gomendioak helaraziko dizkio parte den estatu interesdunari (barne-errekurtsoak amaitu eta gero).

EESKNPren Protokolo Fakultatiboa Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartu zuen 2008ko abenduaren 10ean, eta 2015eko maiatzaren 5ean jarri zen indarrean. Osasunerako eskubidearen edozein alderdi urratu zaiola uste duen edozein pertsonari aukera ematen dio salaketa indibidualak aurkezteko. Beraz, lehen zenbait pertsonak (migratzaileek, emakumeek edo desgaitasuna duten pertsonak) baino ez zuten aukera handitzen du.

Gaur egun, Marokok ez du EESKNP berretsi (Paktura atxiki direnen eta berretsi dutenen zerrenda ikus daiteke honako esteka honetan:

https://treaties.un.org/Pages/ViewDetails.aspx?src=TREATY&mtdsg_no=IV-3-a&chapter=4&clang=_en)

¹⁵ Giza Eskubideen Batzordearen 2002/31 Ebazpenak sortu zuen errelatore bereziaren agintaldia pertsona guztiek ahalik eta osasun fisiko eta mentalik onena izateko eskubidearen gainean. Kargua Paul Huntetik (Zelanda Berria) bete zuen lehen aldiz, 2002ko abuztutik 2008ko uztailean bitartean. Ondoren, Anand Groverek (India) hartu zuen kargua, eta 2014ko uztailean Dainius Pūras (Lituania) ordezkatu zuen.

Errelatore bereziaren Osasunerako Eskubidearen gaineko agintaldia

- Osasunerako Eskubideari buruzko iturri egoki guztien informazioa biltzea, eskatzea, jasotzea eta trukitzea;
- Elkarrizketatzea eta eragile egokien arteko kooperazio posiblea aztertzea, gobernuak, organoak, erakunde espezializatuak eta Nazio Batuetako programak barne, zehazki, OME, ONUSIDA eta nazioarteko GKEak eta finantza-erakundeak;
- Osasunerako Eskubideari mundu osoan duen egoerari buruz informatzea, legegintza, politikak, jardunbide egokiak eta oztopoak barne hartuta;
- Gomendioak egitea Osasunerako Eskubidea sustatzeko eta babesteko neurri egokiei buruz.

Zeregin horiek betetzeko, errelatore bereziak xedeak gauzatzen ditu herrialde ezberdinetan, bereziki kezkarriak diren gaiak ikertzen ditu eta pertsona indibidualak edo taldeek osasunerako eskubidearen ustezko urraketak salatzen bidaltzen dituzten jakinarazpenak aztertzen ditu. Urtean behin, bere lanaren berri ematen dio Giza Eskubideen Kontseiluari, eta, egokituz jotzen badu, parte diren estatuekin bil daiteke beren lurraldean osasunerako eskubideari dago-kionez egindako urraketak lantzeko.

Eskualde afrikarrean, giza eskubideen babes-sistemak jasotzen ditu eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Afrikako Gutunaren artikuluetan. Osasunerako eskubidea 16. artikuluan arautzen da, aipamen zehatz bat eginez emakumeen eskubideei eta, bereziki, sexu-osasunari, bere protokolo gehigarrian.

Gutuna autodeterminazioaren eskubidetik abiatzen da, eta esplizituki, honakoa dio hitzaurrean: *“zuzenbide zibilak eta politikoak ezin dira bereizi, oro har, ekonomia-, gizarte-, eta kultura-zuzenbidetatik, eta ekonomia-, gizarte- eta kultura-zuzenbideen asetasunak zuzenbide zibilez eta politikoez gozatzeko bermea dakar”*. Halaber, gutuna oso esplizitua da aginduak betetzeko beharrari dago-kionez, bai kide diren estatuen bai norbanakoen aldetik. Hura ezartzeko organo eskudunak dira Gizakien eta Herrien Eskubideen Afrikako Batzordea eta Gizakien eta Herrien Eskubideen Afrikako Gortea.

Era berean, Haurren Eskubideei eta Ongizateari buruzko Afrikako Gutunak, Afrikako Batzordeak onartua 1990eko uztailaren 11n, eta 1999ko azaroaren

28an indarrean egonda, osasunerako eskubidea jasotzen du. Hitzaurrean aipamena egiten zaio adingabeen osasun fisikoak eta mentalak behar duen zaintza bereziari, eta 14. artikuluan espresuki jasotzen da haurtzaroaren osasunerako eskubidea. Artikulu hori beste artikulua batzuek osatuta dago, hala nola haurren lanari ezarritako mugak edo torturaren eta gehiegizko tratuen debekua arautzen dituzten arauak (15. eta 16. art.).

Marokok erakundea 1989an utzi zuen, baina 2016an berriz sartzeko eskatu zuen. Orduetik Giza Eskubideen Sistema Afrikarretik eratorritako konpromisoak betetzera derrigortuta dago, beraz, beste gauza batzuen artean, bi urtez behin eskubideak betetzen dituela informatzeko beharra du.

Politikek eta tokiko arauketak, giza eskubideen nazioarteko zuzenbideak ezarritako araukin bat egin beharko luketenek -derrigorrez, Estatu bakoitzak berretsitako baliabideen edukiarekin-, erreferentzia-marko bat eskaintzen dute, Mendebaldeko Saharan osasunerako eskubidearen egoera aztertzeko. Aldi berean, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren¹⁶ arabera, potentzia okupatzaileek dute NBEren Gutunaren eta nazioarteko hitzarmenen arauak betetzeko eta hura betetzen dela arduratzeko betebeharra. Horretarako, arau konkretu batzuk dituzte, eta hori urratzeak giza eskubideak urratzea dakar.


2.2. Osasunerako Eskubidea Mendebaldeko Saharan: sarrera

Aurrez aipatu den moduan, ikerketa hau planteatzen da Mendebaldeko Saharako giza eskubideen egoerari buruzko datu-gabeziari erantzuna emateko. Gure mugak eta esperientziarik eza aintzat hartuta, eta horri lurraldearen errealitatea gehituta –Marokok legez kanpo okupatu du–, errealitate bat eta kezka bat salatzean datza, lurraldearen errealitatea egiazkotasun handiagoarekin azaltzeko

¹⁶ Jatorri arrunteko eta ohiturazko jatorriko nazioarteko arauen multzoa, barne-gatazketan zein nazioartekoetan aplikatzeko berariaz egin zena. Arrazoi humanitarioak direla medio, gatazkaren alderdiek gerra egiteko metodoak eta baliabideak libreki aukeratzeko eskubidea mugatzen du, eta eragindako edo eragin ditzakeen pertsonak eta ondasunak babesten ditu. Haren edukia arautzen dute, funtsean, Genevako 1949ko lau hitzarmenek: Genevako I. Hitzarmenak, kanpainen zehar armadaren zaurituen eta gaixoen mina arintzekoak; Genevako II. Hitzarmenak, itsasoko armadaren zaurituen, gaixoen eta naufragoen mina arintzekoak; Genevako III. Hitzarmenak, itsasoan gerrako atxilotuei eman beharreko tratuari buruzkoak; eta Genevako III. Hitzarmenak, gerran zehar zibilei eman beharreko babesari buruzkoak. Horiez gain, 1977ko protokolo gehigarriek ere arautzen dituzte. - I. protokolo gehigarriak, nazioarteko gatazka armatueta biktimak babesteari buruzkoak, eta II. protokolo gehigarriak, nazioartekoak ez diren gatazketako biktimak babesteari buruzkoak.

datu fidagarriak lortzeko aukera ematen duten ikerkuntza-ekintzak eragiteko. Beste batzuek isilpean gordetzen dutena ezagutzen jarraitzeko aukera ematen duten tresnak eskaintzen dizkiguten datuak eman nahi ditugu.

Daturik eza hori agerian geratzen da jarraian jasotako mapan. Mendebaldeko Saharako lurraldearentzako giza garapenaren indizerik¹⁷ ez dago. Adierazle hori Nazio Batuetako garapenerako programak eratzen du, eta, bizi-itxaropenaren aukera aintzat hartzen duenez, biztanleen egoerari buruzko datu garrantzitsuak eskainiko lituzke, adibidez, aztertzen ari garen kasuaren inguruan.



Mapak adierazlea agertzen du: GGI - Giza Garapenaren Indizea. Datuak munduko herrialde subirano ezberdinetakoak dira.

Datu-iturria: UNDP. Datuak iturriak emandako azken erregistro-datakoak dira, 2014koak.

¹⁷ Giza Garapenaren Indizea (GGI) herrialdearen arabeko giza garapenaren adierazle bat da, Nazio Batuen garapenerako programak (NBGP) egina. Giza garapenaren funtsezko dimentsioetan lortutako batez besteko neurrien adierazle sintetiko bat da: 1 - Osasuna: jaiotzean izandako bizi-itxaropenaren arabeko neurria; 2 - Hezkuntza: helduen alfabetatze-tasak eta lehen mailako, bigarren mailako eta goi-mailako hezkuntzen matrikulazio-tasa gordin konbinatuak zein derrigorrezko hezkuntzaren iraupen-urteek neurtuta; 3 - Aberastasuna: per capita BPGren eta erosahaltenaren parekotasunaren arabera neurtuta nazioarteko dolarretan.

Elkarrizketek eta egindako ikerketan zehar jasotako datuek agerian uzten dute herritarrei ematen ari zaien zerbitzua oro har ez dela nahikoa. Ez dago osasun-sistema unibertsalik herritarrentzako osasun-arreta bermatzen duenik.

Kontakteten arabera, Saharako biztanleek etengabe jasaten dituzte zabarkeria medikoak, eta horrek babestuta ez daudela eta deskonfiantza sentiarazten die. Ondorioz, beren osasun-egoerak beste arrisku argi bat du. Egoera hori gero eta larriagoa da Gdeim Izikeko Kanpamentuaren ostean eta manifestazioak eta intifadak egiten direnean. Osasuna saharar herria zigortzeko tresna gisa erabiltzen da, eta gertakizun politiko batekin lotuta osasunera jotzen dutenen edo dagoeneko aurrekari politikoak dituzten edo beren ahaideen gaineko presioa handitzen da.

Halaber, ematen den zerbitzuaren kalitate urria azaltzen da. Kalitaterik eza horrek agerian uzten du Mendebaldeko Saharan ez zaiola inbertsio publikorik egiten osasun-sistemari. Ez dago gaixotasunak prebenitzeko neurririk; ez da jarraipen medikorik egiten eta ez da arreta medikorik jasotzen gaixotasunaren lehenengo seinaleak agertzen direnetik. Ondorioz, zaurgarritasun-testuinguru garrantzitsua sortzen da. Esan bezala, orokorrean ez dago konfiantzarik osasun sistemarekiko.

2.3. Osasun-zerbitzuak

Okupatutako Lurraldeetan medikuntza orokorra bakarrik eskaintzen da, ez dago arreta espezializatuko zerbitzurik, ez eta kirurgiarako prestatutako gularik ere. Medikuntza espezifikoa, tratamendu edo ebakuntza jakinak behar direnean, lurralde horretako herritarrek iparraldeko lurraldeetara joan beharra dute nahitaez, Agadirera edo Marrakexera normalean, gaixotasunaren arabera. Saharar erizain batek azaltzen du elkarrizketa batean, okupatutako eremuetan dauden espezialitateei buruz galdetzen diotenean:

Espezialitate urri daude. Hemen ez da bihotz-ebakuntzarik egiten, ez eta burmuin-ebakuntzarik ere. Marokon klinikak daude, bai eta espezialitateak ere. Gertuen dauden lekuak Agadir edo Marrakex dira.

Marokoar lurraldean arreta medikoa hobea da. Gaixotasun eta minantz mota guztiak tratatzeko behar den ekipo medikoa duten ospitaleak daude. Horrek agerian uzten du Marokoko Gobernuak ez duela interesik biztanle batzuei zerbitzurik emateko. Beraz, osasunerako eskubidea urratzen da, alde batera uzten baita eskubidea erabat betetzeko behar diren neurriak hartzea (bete

beharreko betekizuna). Kalitateko osasunerako eskubideak, Batzordeak adierazi duenez, erabilgarritasun-irizpideei erantzun behar die. Horretarako, osasun-establezimendu eta -zerbitzu kopuru nahikoa eman behar die herritarrei, eta hori ez da bermatzen Mendebaldeko Saharan. Osasun-teknikari batek azaltzen duenez, ez dago aukerarik ikasteko, beraz, ez eta saharar koadro teknikorik edukitzeko ere:

Marokok ez ditu Saharako indigenak osasun-institutuetan prestatu nahi, medikuak edo erizainak izan, esaterako [...]. Erizain balioaniztunak ditugu, baina ez dugu erizain teknikaririk, laborategiko erradiografiari, hezkuntzari, anesthesiari eta abarri dagokienez. Jende horrek guztiak, marokoarrak, medikuak edo erizainak izan, ez du eremu honetan geratu nahi, hemen basamortua dago eta. Bistakoa denez, Marokon bizi nahi dute, ez berriz, Saharan.

Osasun-zerbitzu ezberdinetan jasotako tratu eta zerbitzuari dagokienez, aldeia dago, ikerketa hau egin bitartean detektatu denaren arabera: ospitale pribatuak, larrialdietako aldeak, ospitale publikoak, ospitale militarra eta medikuntza tradizionalako kontsultak. Zerbitzu bakoitzak era ezberdinean funtzionatzen du, eta edozein zerbitzuren truke ordaindu behar da beti: kontsulten truke, sendagaien truke, ebakuntzen truke edo ospitaleratzearen truke.

2.3.1. Osasun-zerbitzu publikoak

Osasun-zerbitzu publikoak dira erabilienak, gainerakoak baino merkeagoak direlako. Hala ere, zerbitzu horien erabiltzaileek arreta jasotzeagatik ordaindu behar dute ere bai. Horrek osasunerako eskubidea betetzeko eta bermatzeko betebeharra baztertzen du erabat; eta, EESKren Batzordearen 14. zehaztapen orokorrean ezarritakoaren arabera, osasun-sistema publiko, pribatu edo misto bat ezarri behar da guztientzako eskuragarria dena, osasun-zerbitzuak zuzentasunez banatzeaz gain.

Elkarrizketatutako pertsonak kontatzen dutenez, langile medikoen aldetik jasotzen duten tratua ez da egokia. Gainera, esan dute batzuetan langile medikoek poliziak balira bezala aritzen direla, gaixotasunengatik zigortu edo errua botatzeko asmoz ariko balira bezala.

[...] amatasuna, emakumeren bat datorrenean medikuak oihu egiten die: zergatik zatoz hona? Etxean erdi dezakezu. Edo emakume batek minagatik garrasi egiten duenean, isiltzeko agintzen diote, eta

bertan zergatik egiten duen garrasi esaten diote. Eta gaizki tratatzen diete, oso gaizki. Atxiloketa-zentro baten antzera. (Osasun-arloko profesionala)

[...] gaizki tratatzen dizute [...] ospitale batera bazoaz esango dizute: kendu eskua hemendik! Jarri hor, jesar zaitetz! Zer duzu zuk! Zer nahi duzu! Medikuak zurekin hitz egiten du polizia-etxean egongo bazina bezala. (Familia bateko aita)

Errespetuz tratatzen ez dieten pertsonen esku daude Saharako erabiltzaileak, eta ez dira fidatzen diagnostikoez eta tratamenduez. Beste pertsona batzuen esperientziak ezagutzen dituzte: diagnostiko okerra eman dieten pertsonenak, sendagai egokiak errezetatu ez dizkieten pertsonenak edo gaixotasunari buruzko txostenak jaso ez dituztenen pertsonenak. Elkarrizketatu batek kontatu duenez, bere espedienteari argazki bat egiteagatik kobratu zioten, eta espedientea ez zioten eman.

Zerbitzu publikoen barruan larrialdietako zerbitzuak, ospitale publikoak eta anbulantziak barne hartzen dira. Larrialdietako zerbitzuak ez dituzte erabiltzen gaixotasuna benetan larria ez bada edo minantz handia ez badute. Elkarrizketatuen hitzetan horrelakoa da anbulantzia-zerbitzua:

[...] Anbulantzian doan edozein gaixo bidean hil daiteke, arreta medikoa ez baita ona. [...] anbulantzian eraman diezazuten 400 € ordaindu behar duzu, bai horixe.

Den-dena ordaindu behar da. Anbulantzia publikoa da, eta Aaiun edo Marrakexera norbait eraman behar baduzu nahitaez ordaindu beharko duzu. (Osasun-arloko profesionala)

Horren harira, sendagaiak eta material medikoa pazienteek ordaintzen dute, eta, hainbatetan, arreta medikoa gaixoak edo haren familiak egindako ordainketa ekonomikoaren eraginpean dago. Erradiografiak, seruma, igeltsua eta abar ordaintzen dira. Egoera hori sahararrek zein marokoarrek bizi dute. Halere, elkarrizketetan sahararrek eta kolonoek jasotzen duten tratu desberdina azpimarratu dute. Azken horientzako errazagoa da osasun-txartela edo *ramid* (ikusii. atala – osasun-txartela) lortzea. Elkarrizketetan, halaber, aditzera eman dute hori lortzeko ordaindu behar dela ospitalera iristean. Ordaintzeak ohe bat lortzen lagun dezake pazienteari edo haren lagunari, edo, adibidez, arreta azkarrago jasotzen ere bai. Era berean, Marokoko erregimenaren aldekoa zarela adierazteak ere laguntzen du.

[...] Beno... Sahara Marokorena dela babesten badut, dena egingo dute. Baina Sahara askearen alde agertuz gero, ez dute interesik izango.

- Baina mediku batek nola daki hori?

Hark esango du.

- Medikuarenera joan eta hori esango duzu?

Ez du dena aipatuko, baina zerbait bai. Baina nire dokumentazioa ematen badut eta sahararra bada, ez du interesik izango. Baina Marokorekin harreman ona duen norbait badoa, haren aldekoa dela adierazi eta mesedez zerbait egiteko eskatuko dio...

Aipatzekoa da gai batzuk hainbatetan agertu direla elkarrizketetan.

2.3.1.1. Amatasuna

Deskribatutako zerbitzu guztietatik amatasun-laguntza da kezkarriena. Erditzeko geletan higienerik ez egotea ohikoa da. Gelak ez daude garbi, maindi-reak aurreko pazienteen odolaz zikin daude... Elkarrizketatuek esan dutenez, labezomorroak daude erditzeko geletan. Infekzioak transmititzea ohikoa da.

Amatasuna-arloak, emakumeak doazen lekuak, zabortegia dirudi [...]; ez dago higienerik, maindireak botata daude, eta ezer ez dago garbi.

Amatasuna, emakumeei erditzen laguntzeko datozen erizainak praktikanteak dira. Ospitale publikoko erizaina.

Orduan, haurrak jaiotzen diren lekua zikina dago. Kakalardoak daude, katuak daude... Kontu handiz ibili beharra dago katuak haurrengana ez hurreratzeko (Familia bateko ama)

Emakume berak kontatu duenez, hiru hileko bere iloba gaixotu zen, eta ospitalean helduentzako serum espezifikoa jarri zioten. Haurtxoa koman sartu zen. Las Palmasera eraman zuten, eta bertan bizia salbatu zioten.

Jasotako tratua eta arreta ereduzkoa izan zela azaldu dute. Esan dutenez, zenbaitetan gelak osorik daude, eta beste emakume haurdun batekin partekatu behar dute ohea. Erdiondoa 24 ordukoa baino ez da. Ama eta haurtxoa azkar bidaltzen dituzte etxera, erdiondoko jarraipenik egin gabe. Planteatu dutenez, tratua ez da egokia erditzearen aurretik, erditu bitartean, ez eta erditu eta gero

ere. Erditu aurretik haurduntza-prozesuaren jarraipenik ez da egiten, beraz, adierazi dutenez, ohikoa da goiztiarrak hiltzea edo haurtxoak haurduntza bitartean hiltzea. Emakumeak artatu ohi dituztenak praktikako ikasleak dira, eta ez dituzte prozedurak ongi ezagutzen.

Emakumeak erditu bitartean oihu egiten badu, ez egiteko agintzen diote. Hainbatetan, emakume erdiurrenei ez zaie arretarik ematen eta etxera bidaltzen zaie. Zesareak maiz egiten dira, beharrezkoa ez denean ere bai. Kontatu dutenez, uteroa kentzen dute zenbaitetan, emakume haurduna konturatu gabe. Ondorioz, etorkizunean ezingo dute seme-alaba gehiagorik izango.

Deskribatutako egoerak agerian uzten du eskuragarritasunik eta onargarritasunik eza ikuspegi mediko eta kulturaletik. Gai horiek estatuak konpondu behar ditu; izan ere, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeak definitutako edukiak aintzat hartuta, osasunerako eskubidea urratu dezaketen hirugarrenen egintzetatik babesteko betebeharra du.

Osasun-sistema eraginkor bat ez dagoela agerian uzten dute elkarrizketetan edo topaketetan azaldutako beste egoera edo adibide batzuek. Emakume batzuek kontatu dute medikuei ordaintzera behartu dituztela, bai eta jaioberriak behar izango duen gutzia ospitalera eramatera ere. Halaber, jasotako tratua osasun-langileei egindako ordainketaren araberakoa da, jadanik aipatu denez. Hortaz, ahal izanez gero, langileen arteko kontaktuez baliatzen dira, eta, erditzearen egunean arreta egokia jasotzeko, ordaintzen saiatzen dira.

Egoera horrek beldurreko, segurtasunik ezako eta mesfidantzako sentsazioa eragiten die emakumeei, medikuei eta beren zerbitzuari dagokienez. Emakume haurdun askok etxean erditzea erabakitzen dute emagin saharar batekin, horrek dituen arriskuak gorabehera.

Esan ohi da ernalezintasun-maila handia dagoela, eta, arrazoia ezagutzen ez bada ere, eragindako gauza bat izan daitekeela susmatzen da. Horren harira, herritarrak asko kezkatzen dituen gai hori konpontzeko laguntza eskatzen dute.

2.3.1.2. Giza baliabideak eta materialak

Jasotako lekukotzetatik ondoriozta daitekeenez, deskribatutako egoera ugari pazienteak artatzeko mediku- eta material-gabeziak sortu ditu. Elkarrizketatutako osasun-langileek kontatu dute sendagaiak daudela, baina pazienteei beti eskatzen zaiela horiek erosteko.

[...] larrialdi-kasu askotan sendagaien bila joateko esaten diete, sendagaia ospitalean egon arren.

Sendagai mota guztiak ditugu, baina norbaitek eskatzen dituenean horien bila joateko erantzuten zaio; esaterako, zerbait hautsita duen pertsona bati, izotza jarri eta paramedikua renera joateko agintzen zaio [...].

Elkarrizketatutako pertsona guztiek aipatu dute erabiltzen dituzten sendagaien kalitatea zalantzarikoa dela.

Bestalde, medikuak Marokotik datoz, eta gazte lizentziatu berriak dira, edo praktikak egitera datoz Mendebaldeko Saharara. Medikuak hobeto prestatuta egoteko eskatzen dute pazienteek. Mediku horiek, bestalde, xede eta leku horiek nahitaezko eta aldi baterako kontutzat hartzen dituzte. Esperientzia dutenean, Marokora itzultzen dira. Paziente sahararrek ez dute haiengan konfiatzen, ikerketan zehar egindako zenbait topaketatan adierazi dutenez.

Hemen ez dago doktorerik. Nola esan? Medikuak aldi baterako datoz hona. Ikasten ari direnak datoz, eta praktikak hemen egiten dituzte. [...] Ez dute esperientziarik. Gaixotasun guztiekin praktikatzera datoz.

Medikuak bortxatuta etorri ohi dira hona. Hilero egin behar dute txosten bat bi urtera arte. Eta lan egiten duten egunak kontatuz gero, konturatuko gara oso egun gutxitan egiten dutela kontsulta, eta horregatik, jendea Agadirera, Marrakexera, Casablancara eta abarrera joan behar da... Osasun-langile teknikoak

Eta mediku espezializatuak ez dira urte bat baino gehiago geratzen Aaiunen. Urtebete egon eta badoaz.

Hala ere, zaila da mediku sahararrak topatzea. Ez zaie aukera ematen medikuntza ikasteko, eta Espainian prestatutako saharar mediku bat Mendebaldeko Saharan lan egiten saiatzen denean, besteak beste, Marokoko erregimenarekin bat egiten dutela adieraztera behartzen dituzte, eta hori ez dute onartzen. Osasun-langile sahararrek, gutxi izateaz gain, adierazi dute tratu iraingarria jasotzen dutela beren kideen eta buruzagien aldetik, sahararrak direlako. Oso zaila edo ezinezkoa zaie beren karrera profesionala garatzea, lanpostu hobea goa lortzeko azterketak gainditzen ez dietelako uzten eta tratu ezberdina ematen dizkietelako.

Diskriminatu egiten dizute sahararra izateagatik, tratu ezberdina ematen dizute [...] Zenbaitetan ordu gehiago egiten dugu lan, eta

oporrak hartzea zaila zaigu. Eta askotan entzuten dugu marokoaurrek aparteko ordainsaria jaso dutela, guk berriz, ez.

Marokoaurren soldata 600 €-tik gorakoa da; gurea, 500 €.

Lekukotza horietatik ondorioztatzen dira langile sahararrei jartzen dizkieten oztopoak, beren karrera profesionala hobetu ez dezaten. Gainera, karrera horrek lotura zuzena du eskaintzen den kalitate urriko arreta medikoarekin. Beste arlo batzuetan, adibidez, hezkuntzaren arloan, antzeko politikak erabiltzeak gogora ekartzen du jardunbide horiek Marokoko gobernuaren estrategien barukoak direla, saharar herria zigortzeko¹⁸.

2.3.1.3. Osasun-txartelak

Gure osasun-sisteman gertatzen denaren antzera, osasun-txartela behar da osasun publikoa erabili ahal izateko. Elkarrizketetatik ondoriozta daitekeenez, pertsona bakoitzaren profilaran arabera, oso arreta ezberdinak ematen dira, eta horrek alde handia sortzen du hasieratik. Hala, adibidez, *ramid* izeneko txartela familia kolono guztiei ematen zaie, ez berriz, sahararrei; hori adierazi dute elkarrizketatu askok. CNOPS akronimodun txartela ematen zaie Marokoko Estatuaren kartzelazte bortxatuen biktimak izan direnei.

Antzaz osasun-beharrak betetzeko irizpideak ezarri direla badirudi ere, Marokoko Estatuaren biktimak izan direnak barne, egia esateko jardun horrek ez ditu osasun-eskubiderik ematen. Estaldurak ez ditu gutxieneko bermeak ematen inola ere ez. Arretarik oinarritzkoenak ere kostuak eragiten dizkio pazienteari edo haren familiari, egindako elkarrizketa guztietan jasotako adierazpekin bat eginez.

[...] osasun-txartelak oso oinarritzko gaiak eskuratzeko aukera ematen du, herritarren osasunarentzako garrantzirik ez dutenak CNOPS izeneko beste txartel bat dago, Estatuaren aldetik kartzelazteko bortxatuaren biktimak izan direnei ematen zaie. Nik txartel hori daukat, Marokoko gobernuak kartzelaratu ninduen eta. Baina egoera berean

¹⁸ Testuan zehar “zigor” politika horrekin lotuta dauden hainbat dinamika ohar daitezke. Hezkuntzarako eskubidea lantzen duen atalean xehetasun handiagoarekin azaltzen dira gaur ikasle sahararrek dituzten oztopoak unibertsitateko karrerak egiteko, besteak beste, medikuntza ikasteko.

gaude: erradiografia bat edo beste edozer egin nahi dudanean, guztiagatik ordaindu behar dudala esaten didate.

2.3.2. Ospitale pribatuak

Elkarrizketatuen kontakizunetik ondorioztatzen denez, ospitale pribatuetako tratua hobe da. Halere, beti ez dituzte ekipo eta material nahikoak, ez eta patologia eta arlo guztietako adituak ere. Bestalde, material mediko hobe dute ere bai, baina kontsulten prezioa askoz handiagoa da. Sistema publikoan 70 dirham ordaintzen diren bitartean, kontsulta pribatuaren prezioa 200 dirham da.

Jasotako lekukotzen arabera, ohikoa da sistema publikoko langile medikoek kontsulta pribatua ere lan egitea eta pazienteak kontsulta horretara bidaltzea, horrek dakartzan kostu handiekin. Gainera, elkarrizketatuek azaldutakoaren arabera, hori ez du legeak onartzen.

[...] Marokoko legearen arabera osasun publikoko mediku batek ezin du kontsulta pribatua egin... Baina hori legeak dio, errealitatean gauza ezberdin bat gertatzen da. Beste gauza bat. Medikuek bat lortu nahi baduzu, medikuek baten bulego pribatua joan behar zara.

2.3.3. Ospitale militarra

Ospitale Militarrek ospitale pribatu gisa funtzionatzen du. Pertsona partikular gisa joan zaitezke, baina ezarritako tarifa handiak ordaindu beharko dituzu. Ondorioz, ez da ohikoa familiak bertaratzea:

[...] hasieran ordaindu behar duzu; egun bat, bi edo hiru egongo bazara Ospitale Militarrean, bi mila dirham ordaindu beharko dituzu sartu aurretik. Beraz, dirua duen jendea bakarrik joan daiteke.

Elkarrizketatuek adierazi dutenez, ospitale horretan txikiagoak dira itxaron-aldiak, eta medikuak prestatuagoak daude; ez daude mediku jeneralistak bakarrik.

Ospitale militarrean artatu dituzten pertsona atxilotuek emandako arretak kontatzean, kasu guztietan aipatu da sahararrenaganako indarkeria, bai eta osasun-langileek tortura egiten dutela ere. Horrez gain, adierazi dute zentro

horretan sendagaiak ahoratu eta gero, zorabioak, sinkopeak, eta krisi epileptikoak gertatu zaizkiela zentro horretatik igarotako pertsoneri.

Langileengan konfiantzarik ez dagoela ohar daiteke, eta atxilotuen kasuan bistakoa da; eta familia guztietan presente dago.

2.3.4. Medikuntza tradizionala

Elkarrizketatutako pertsona batzuek nabarmendu dute medikuntza tradizionala ordezeko aukera bat dela, osasun-sistema egokirik ez izatearen aurrean. Adierazi dutenez, saharar herriak beti erabili izan du medikuntza tradizionala, eta azpimarratu dute harengana jotzen denean, familian edo ezagutza handiagoa duen norbaitengana joz, gaixoarekiko errespetua eta minantzak edo gaixotasunak sendatzeko nahia nabaritzen dela, ospitale publikoetan ez bezala. Zerbitzu hori oso zabaldua dago eta ez da ordaindu behar ospitaleetan egiten den bezala. Gainera, mesfidantzak sortutako tentsio psikologikoa ere ez da pairatu behar.

Medikuntza hori oso integratuta dago kultura sahararrean, horregatik etxeetan oso ohikoa da etxeko erremedioez osatutako botikin bat aurkitzea. Gainera, haren prestakuntza eta erabilera belaunaldiz belaunaldi transmititzen da.

Botikin tradizionalaz gain, saharar sendagileak ere badaude, eta laguntza eske joaten zaizkien pertsonak artatzen dituzte, doan. Elkarrizketatutako pertsonen kontakizunetatik ondorioztatu daitekeenez, sendagile horietara jotzen dute, bereziki, gaixotasunaren bi une jakinetan: gaixotasuna edo minantza oso larria ez denean baina beren etxeko erremedioekin sendatu ezin izan dutenean, edo ospitaleetara joan direnean eta ahalegin handiak egin eta medikuntza konbentzionalararen zirkuituan hobekuntzarik egiten ez dutela egiaztatu ondoren, joateko beste lekurik ez dagoela uste dutenean. Beraz, bide horretara jotzen dute.

Era berean, zenbaitetan esan da aukera hori dela manifestazioetan zauritutako pertsonen duten bakarra; izan ere, ospitaleetara joaten badira ez dituzte artatuko, eta, hori gutxi balitz, osasun-langileek salatu ahal dituzte.

Aurrez aipatu da haurdun dauden emakume askok hautatzen duten aukera. Saharar emaginengana jotzen dute, horiek etxeetan egiten diren erditzeetan laguntzen baitute, emakumeak erosoago eta seguruago sentitzen direlako. Egokigarritasuna eta irisgarritasunaren baldintzetara erantzuten dieten tratu bat eskaintzen da, eta baldintza horiek, hain zuzen, kalitate-eskubidea izateko beharrezkotzat identifikatzen dira. Zerbitzu publikoetatik hori deuseztatzen da, horregatik, beste modu

batzuen bidez ordezkatu behar da, nahiz eta erditzeko modu horrek erditze zailetan arriskuak ekar ditzakeen amarentzat eta umearentzat.

2.3.5. Periplo medikoa

Elkarrizketetan eta aurreko ataletan bildutako kontakizun ezberdinetatik ondoriozta daitekeenez, elkarrizketatutako pertsonak kasu guztietan ibilbide bera egiten dute arreta medikoa behar dutenetan. Eskura dauden osasun-zerbitzuek gutxi gorabehera ezarritako eta baldintzatutako ibilbide bat osatzen da. Hala, aipatu den moduan, ez dute osasun-zerbitzuetara jotzen gaixotasun edo minantz larriren bat ez bada. Kasu horretan, lehenik eta behin, larrialdietara joaten dira, eta hortik aurrera, gaixotasunaren larritasunaren arabera, makina bat bisita egiten dituzte medikuarenera, ospitaleetara, baita bidaiak eta ordainketak ere. Egoera hori ondo deskribatu du elkarrizketatutako emakume batek:

[...] botika asko ematen dizkizu, baita analisiak bidali ere, eta, beraz, beste kontsulta batzuetara itzuli behar zara [...] eta orduan berriz ordaindu beharra dago. Bai, kontsulta eta analisi bakoitzeko kobratu egiten dizu.

Ez da ohikoa medikuek mediku-txostenak ematea pazienteei. Horiek ere ordaindu egin behar dira, eta, ordainduta ere, beti ez dira lortzen. Hori dela eta, gaixotasunaren jarraipen zehatza egitea zaila izaten da, eta diagnostikoarentzako frogak errepikatu behar izaten dira. Elkarrizketetan adierazi den moduan, osasun-langileek aberasteko erabiltzen duten estrategia bat da. Merkantzia gisa tratatzen gaituzte, eta merkantzia horrekin salerosi egiten dute, adierazi du elkarrizketatutako pertsona batek. Esan nahi duena ulertzeko adibide gehiago eman ditu:

Adibidez, oraindik 40 egun ez dituen ume bat ospitalera eramaten dute sukarra duelako. Behar duen gauza bakarra da seruma edo tratamendu bat jartzea sukarrak behera egin dezan. Hala ere, lehenago ordaintzeko agintzen digute, bizitza horren menpean egon arren.

Arreta espezializatuagoa behar den kasuetan, Marokora joan behar dute, bertan baitago medikuntza espezializatuagoa eta han artatu ditzaketelako pertsona gaixoak. Hala eta guztiz ere, Agadiren edo Marrakexen egonda, ohikoa izaten da diagnostiko berri batekin hasi behar izatea eta medikazioa aldatzea. Ibilbide horrek guztiak ordainketa asko eskatzen ditu, arreta medikoa jasotzeko nahiz

sendagaiak, joan-etorriak edo ospitaleratzeak ordaintzeko. Ordainketa horiek familiari eragiten diote, baita gaixoaren gertuko inguruari ere; izan ere, gastu horiei guztiei aurre egiteko familia- eta lagun-sareari eskatzen zaio laguntza.

Estatuek duten babesteko betebeharrak, Eskubide Ekonomiko, Sozialen eta Kulturalen Batzordeak aztertu duenak, azpimarratzen du betebeharrak horren zati bat dela Estatuak lege-neurriak hartu behar dituztela, baita beste neurri mota batzuk ere, eragile pribatuek giza eskubideetako neurriak betetzea lortzeko, arreta medikoa edo beste zerbitzu batzuk ematen dituztenean. Are gehiago, pribatizazioa establezimenduen, ondasunen eta osasun-zerbitzuen erabilgarritasunarentzako, irisgarritasunarentzako, onargarritasunarentzako eta kalitatearentzako mehatxu bat ez izateko arduratu behar dute, bai eta osasunerako eskubidearen kontra eraso egin ahal duten hirugarrenen egintzetatik pertsonak babestu ere. Hori guztia Mendebaldeko Saharan gertatzen da egindako elkarriketetan bildutakoa aintzakotzat hartzen bada.

2.4. Arreta medikoa manifestazioen ondoren

Herri sahararraren eskubideak urratu direla salatzeke herriak egiten dituen manifestazioen ondorengo arreta medikoari dagokionez, kontakizunek adierazi dutenez, ospitaleetan eta haren inguruan jazarpen poliziala egoten da argi eta garbi, manifestari zaurituek arreta medikoa jasotzea ekiditeko. Hala, azaldu dutenez, ohikoa izaten da polizia aurkitzea larrialdietako aldearen atean. Bestalde, adierazi duten moduan, medikuen tratua diskriminatzailea eta zapaltzailea da, eta premiazko arreta medikoa ematea ukatzen da ustez manifestazioan sortu diren hausturen edo zaurien aurrean topo egitean.

Hona hemen emakumen baten azalpena:

Medikuekin segurtasun-indarren eta Majzenaren artean dauden sakaketei eta konplotari dagokienez, guk pertsonalki bizi izan dugun zerbait da, poliziak nire ama torturatu baitzuen. Ospitalera joan zenean, larrialdietako anbulantzia etortzeko ordu asko itxaron zituen, segurtasun-zerbitzukoek anbulantzia etortzea galarazi baitzuten. Ospitalera joan zenean polizia ere joan zen. Ospitalera iritsi ginenean ez genuen medikurik aurkitu. Zortea izan genuen; izan ere, ospitalean pertsona bat zegoen eta hark esan zigun ordaindu egin behar genuela, hanka hautsi zuenez eskaiola jarri behar zitzaiolako. Aurrez ordaintzeko agindu zigun, eta mediku-txostena eskatu genionean, esan zigun berak ezin zigula eman, gure medikuarengana joan behar genuela. Esan zi-

gun mediku pertsonalarengana jo behar genuela diagnostiko bat egin ziezaion, baina hark hanka hautsita zuela esan zigun jadanik. Medikuarengana joan ginenean eta galdetu genioenean ea hanka hautsita zuen, ez baikinena fidatzen larrialdietako aldean esan zigutenaz, esan zigun 4000 dirham ordaindu behar genituela diagnostikoa egin zezan.

Horrez gain, gehitu dutenez, medikuak poliziekin adostuta daude, modu horretan, errepresalia politikoak hartzen dira osasun-zerbitzu horien bitartez. Gdeim Izik-eko kanpamentuetan edo manifestazioetan parte hartu dutenen artean kasu ohikoenak izan dira egoera txar batean dagoen sendagai bat ematea edo beste gaixotasun bat tratatzeko sendagai bat ematea. Kasu horiek saharar herrian mesfidantza handia eragiten dute, baita jasotako arreta medikoaren inguruko beldurrak ere, osasunerako kaltegarria den zerbait injektatzeko aukera gogoan hartzeraino.

2.5. Ondorioak eta ohartarazpenak

Deskribatutako agertokiak, aipatu den moduan, osasun-sistematikoko mesfidantza eragiten du, eta, beste aukerarik izanez gero, harengana ez jotzen saiatzen dira. Gainera, gaixoak dirua ordaindu behar du, eta egoera horrek osasuna txartzen du. Halaber, pazientearen eta haren ingurukoaren gogo-aldarteari eta egoera psikologiari eragiten dioten etsipena sortzen du.

Detektatutako gaixotasun batzuk, ohikoenen artean daudenak, diabetesa eta egoera txarreko ura kontsumitzeak sortutako gaixotasunak dira. Horiek behazun-arazoak edo giltzurrun-gutxiegitasuna sor ditzakete (txorrotako uraren kalitate txarrak da adierazitako arrazoi nagusietako bat. Familia askok euri-ura biltzea erabakitzen du edateko). STIak (sexu-transmisioko infekzioa) ere maiz agertzen dira, bai eta tumoreak ere gazteen artetan. Gaixotasun mentalen kopuruak gora egin duela hainbatetan aipatu da ere bai, testuinguruaren ondorioz. Horren harira, elkarrizketatuek adierazi dutenez, hainbatek eskatzen dute arreta psikologikoa emateko gizon bortxatuei; izan ere, beren berreskurapena oso zaila da, batez ere, alderdi psikologiakoari dagokionez.

Lekukotza horiek giza eskubideen urraketari buruzko txostenean (*El Oasis de la Memoria - Memoriaren Oasia*)¹⁹ jasotakoan antzekoak dira. Beristain irakas-

¹⁹ MARTIN BERISTAIN, Carlos; GONZALEZ HIDALGO, Eloísa (Bilbo, Hegoa, 2012), *El Oasis de la Memoria: Memoria Histórica y Violaciones de Derechos en el Sáhara Occidental: I. liburukia*, II. ISBN 978-84-89916-72-2.

leak adierazi duenez, «osasan-aztarnak oso ohikoak dira denboran zehar mantendutako giza eskubideen urraketek eragindako kasuetan, edo biktima bizitzaren eta heriotzaren arteko mugako egoeretan egon denean. Gauza biak ohikoak izan dira saharar biktimetzat». Gatazka konpondu eta gero egin beharreko konpontze-prozesuan aintzat hartu beharreko elementuetako bat da hori.

Batzuek salaketak egiten dituzte, eta salaketa-bideak areagotzera animatzen dute. Hala ere, familiek ez dute ohitura arduragabekeriak salatzeke, ondorioen beldurrez, eta, esaten dutenez, baliorik izango ez zuelako. Langile medikuen aurrean defentsa-gabezia ohar daiteke, eta poliziarengana eramango dituzte-laren beldur dira, horrek egoera larriagoa sortuko liekeelako zuzenean eragindako pertsonari eta haren familiari.

Politika eta programa sanitarioek giza eskubideak sustatu edo urratu ditzakete, legeak ezartzen eta egiten diren moduaren arabera. Beharrezkoa da administrazio-mekanismoen eta mekanismo legalen erabilera sustatzen jarraitzea Marokon, baita giza eskubideen nazioarteko babes-baliabideak ere, herriak bizi duen egoera kasuz kasu salatu ahal izateko.

Bestalde, kaltetuek eskatzen dute sahararrek aukera izateko prestakuntza jasotzeko. Horrela, pertsona prestatuak egongo lirateke, eta osasan-langile sahararren plantilla handituko litzateke. Horrez gain, bakarrik sahararrentzako diren ospitaleak sortzea planteatu da. Horrek aukera emango luke gaixotasun larrietako kasuak tratatzeko edo arreta egokia jasotzeko: ustez tratu egokia jasoko duten herrialdeetara (Algeria, Frantzia edo Espainia)²⁰ joatea saihestuko litzateke. Aukera hori ez da bideragarria eremu okupatutako familia guztientzat, ez bakarrik baliabide ekonomikorik ez dutelako. Lege- eta administrazio-oztopoak ere badituzte sahararrek, are gehiago manifestazioetan parte hartzeagatik edo Marokoko erregimenaren aurka azaltzeagatik aurrekariak izanez gero.

²⁰ Egindako elkarrizketetatik ondorioztatzen denez, Algeriako osasan-zerbitzuetara jotzen dute Tindufeko kanpamentuetan familiako kideak dituztenek; izan ere, errazagoa zaie. Ez dira ahaztu Algeriako gobernuak saharar herriari emandako laguntza eskertzeaz. Frantziaren kasuan, eta, batez ere, Espainiaren kasuan, bertaratzen direnek familiako kideak dituzte bertan, eta horregatik sar daitezke errazago herrialdean. Kasu honetan Espainian bizi diren pertsona zaharrek sarbidea dute, baina arazoak dituzte haiekin datozenak; izan ere, seme-alabek normalean ez dute Espainian sartzeko dokumentaziorik. Ibilbide horietan, ohikoak dira Marokoko polizien jazarpenak eta mehatxuak, Marokorantz ontziratzean edo lehorreratzean.

Hezkuntzarako Eskubidea

3.1. Giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea: erreferentziako markoa

Hezkuntzarako eskubidea funtsezko eskubide gisa aditzera eman da, eta, ondorioz, zuzeneko eta berehalako aplikazioko funtsezko edukia du. Horrez gain, Giza Eskubideen nazioarteko zuzenbidean zenbait tresnak babestu eta garatzen dute. Nazio Batuen Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Paktuaren 13. artikulua jasotzen du «persona guztiek dutela hezkuntzarako eskubidea», eta gehitzen du eskubide hori «bideratu behar dela giza pertsonalitatea eta haren duintasun-zentzua erabat garatzera; gainera, giza eskubideekiko eta funtsezko askatasunekiko errespetua indartu behar du».

Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturaleri buruzko Nazio Batuetako Batzordeak eskubide horren edukia eta eraketa garatu du haren 13. ohartarazpen orokorrean. Ohartarazpen horretako 43. paragrafoan zehazten dira estatuen betekizunak. Haiei dagokie hezkuntza zuzenean ematea:

“Estatu Kideek betekizun zuzenak dituzte hezkuntzarako eskubideari dagokionez, hala nola «eskubideak... diskriminaziorik gabe erabiltzeko ‘bermea’» (2. artikuluko 2. paragrafoa) eta «neurriak hartzeko» betebeharra (2. artikuluko 1. paragrafoa) 13. artikulua betetzeko. Neurri horiek «nahita egin behar dira, zehatzak izan behar dira eta ahalik eta argien bideratu behar dira hezkuntzarako eskubide erabat erabiltzeko».

- **Errespetatzeko** betekizuna: Estatuak saihestu behar dute hezkuntzarako eskubidea oztopatu edo galarazten duten neurriak hartzea.
- **Babesteko** betekizuna: Estatuak neurriak hartu behar dituzte hirugarren alde batek hezkuntzarako eskubidearen erabilera oztopatzea saihesteko.
- **Betetzeko** betekizuna: Estatuak neurri positiboak hartu behar dituzte, partikularrei eta komunitateei hezkuntzarako eskubideaz gozatzea errazteko eta laguntzeko.

Hezkuntzarako eskubide erabat erabiltzeak esan nahi du kalitatezko hezkuntzarako eskubideaz gozatzea, lau ezaugarri ezberdinez definituta dagoenaz: eskuragarritasuna; irisgarritasuna; onargarritasuna; moldagarritasuna.

- **ESKURAGARRITASUNA** - Hezkuntza-erakundeek eta -programek nahikoa kantitatean **eskuragarri** egon behar dute (eraikinak, sexu bietarako osasun-instalazioak, ur edangarria, nazio-mailan soldata lehiakorrek jasotzen dituzten irakasle prestatuak, hezkuntza-materialak).
- **IRISGARRITASUNA** - Hezkuntza-erakundeek denontzako **irisgarriak** izan behar dute, diskriminaziorik gabe, zuzenbidean eta praktikan.
- **ONARGARRITASUNA** - Hezkuntzaren forma eta mamia *onargarriak* izan behar dira ikasleentzat, zein gurasoentzat. Horrez gain, egokiak, kulturari dagokionez aproposak eta kalitate onekoak izan behar dira.
- **MODALGARRITASUNA** - Hezkuntzak malgua izan behar du, eraldatzen ari diren gizarteetara **moldatzeko** modukoa, bai eta testuinguru sozial eta kultural ezberdinetan ikasleen beharrei erantzuna emateko modukoa ere.

Hezkuntzarako Eskubidearen osagarri nagusiak

Estatuek honako hauek egin behar dituzte nagusiki:

- Lehen irakaskuntza doakoa eta nahitaezkoa eskaintzea.
- Ezartzea bigarren irakaskuntza (haren forma ezberdinetan, barne hartuta bigarren irakaskuntza teknikoa eta profesionala) orokortzea, eta, denontzako irisgarria izatea egoki diren bide besteren bitartez, eta, zehazki, gutxika-gutxika doako hezkuntza ezarriz.
- Goi-mailako irakaskuntza banakako gaitasunaren oinarriaren arabera irisgarria izatea ezartzea, egoki diren bide besteren bitartez, eta, zehazki, doako hezkuntza gutxika-gutxika ezarriz.
- Oinarrizko hezkuntza bultzatzea edo areagotzea hura jaso ez duten pertsonentzat edo lehen irakaskuntzaren zikloa osorik bukatu ez dutenentzat.
- Arau minimoak egitea eta hezkuntzaren kalitatea hobetzea.
- Ikastetxeen sistema garatzea irakaskuntza-ziklo guztietan, beka-sistema egokia ezartzea eta etengabe hobetzea irakasleen baldintza materialak.
- Diskriminazioak hezkuntza-sistemetako maila guztietan debekatzea.
- Hautatzeko askatasuna bermatzea.

Estatuek, halaber, erregresiorik ezako printzipioari heldu behar diote, eta ahal bezain baliabide beste egokitu behar dizkiote hezkuntzaren alorrari.

Iturria: NBen Hezkuntzarako, Zientziarako eta Kulturarako Erakundea (<https://es.unesco.org/themes/derecho-a-educacion/obligaciones-estados>)

3.2. Hezkuntzarako Eskubidea Mendebaldeko Saharan: sarrera

Aurreko atalean erreferentzia-marko gisa ezarri den hezkuntzarako eskubidearen edukia oso urrun dago Mendebaldeko Sahararen errealitatetik. Han hezkuntza-sistemak saharar biztanleak diskriminatzen ditu, egindako elkarrizketetan jasotako lekukotzen arabera. Ikasle-talde batek horrela kontatu zuen:

Askotan goizeko zortzietan jaikitzen gara ikastera joateko, eta, bat-batean konturatzen gara kaleetatik guri jarraika daudela ikastetxera

joan ez gaitezen. Batzuei ez digute sartzen uzten. Guk hezkuntzarako eskubiderik ez izatea nahiko balute bezala aritzen dira.

Saharar auziari buruz hitz egitea debekatzen digute [...]; haiek [irakasleek] eskola guztiak erabiltzen dituzte Marokori eta Mendebaldeko Sahararen marokotasunari buruzko gauzak esateko. [...] Eskola erabiltzen dute doktrinamendu politikoa egiteko.

Lehen irakaskuntzako fasean, ikasleak, lehenbizi, patiora sartzen dira goizez, eta Marokoko himno nazionala abesten dute, nahitaezkoa da eta. Norbait eskolara ez badao edo berandu iristen bada, espediente bat egiten diote eta Marokoko himno nazionala ez abesteko egin duela esaten dute. Gainera, Marokoko himno nazionala ez jakitea leporatzeko aukera dute, eta horrek arazoak ekar diezazkizu.

Elkarrizketatuen kontakizunek hezkuntza-sistemaren beste elementu batzuk utzi dituzte agerian. Elementu horiek aditzera eman dute hezkuntza-sistema ez dela kalitatezkoa, hain zuzen ere, aurrez aipatutako lau ezaugarriak (eskuragarritasuna, irisgarritasuna, onargarritasuna eta moldagarritasuna) oinarri hartuta kalitatezko hezkuntzarako eskubidea izatea bermatu beharko luke hezkuntza-sistemak. Hori sistema publikoan agerikoagoa bada ere, irakaskuntza pribatuan ere jarduketa diskriminatzaileak gertatzen dira ere bai. Eta horiek, nolana ere, bistakoak egiten dira hezkuntzaren alorrarekin lotutako elementuetan, ezinbestean ikasgelan edo ikastetxean gertatzen ez direnak (ikastetxetik etxera bideko joan-etorrian, testuliburuetan, poliziaren errepre-sioan, espediente akademikoen kontrolean...).

Jarraian, Mendebaldeko Sahararen hezkuntza-errealitatea ulertzen lagun dezaketen zenbait alderdi aipatuko dira. Errealitate hori aztertzea zaila da, eta, dokumentu honen bidez, eztabaida mahai gainean jarri eta gaia sakontasunez aztertzeke gonbitea luzatu nahi da soilik.

3.3. Hezkuntza-ereduak

Lehen eta bigarren irakaskuntzak ikastetxe publikoetan zein pribatuetan ikas daitezke. Ikastetxe pribatuek, gainera, espezializazioen bat eskaintzen dute. Halere, Mendebaldeko Saharan ez dago aukera goi-mailako ikasketak egiteko, unibertsitaterik ez dago eta.

Hemen, adibidez, ez dago merkataritza- ez ingeniari-tza-instituturik, ez eta estatu-ingeniariak prestatzekorik ere. Horiek Marokon bakarrik daude, hemen ez dira existitzen. Esaterako, ez dago hizkuntzak irakasteko instituturik, hala nola Cervantes Institutua edo institutu frantsesa edo britainiarra bezalakorik. Marokon, berriz, badaude, Marrakexen eta Agadiren. Bestalde, hemen ere ez dago unibertsitaterik.

Egindako elkarrizketetatik ondorioztatzen denez, alde handia dago batetik bestera, neurri handi batean irakaskuntza pribatuan egin beharreko ordainketatik –esan dutenez, «ordaintzen ari zara eta»–. Ordainketa hori egitearen ondorioz, tratu hobea eta arreta handiagoa ematen dizute irakasleek, bai eta nota hobeak ere.

Elkarrizketetan zehar zenbait gai atera dira: erabilgarri dauden baliabide materialak, irakasleen prestakuntza (kasu gehienetan prestakuntza ez da nahikoa) edo ikasgela bakoitzeko ikasle-kopurua.

Alde handia dago pribatutik publikora. Pribatua publikoaren ezberdina da, adibidez, eskolei eta gaitasunari dagokienez. Lagun batek kontatu zidan aurreko urtean eskolak eman zizkiela 62 ikasleri lehen irakaskuntzako ikasgela batean. Ba nik 15 pertsonari ematen dizkiet eskolak, gehienez, 20ri; eta materiala dago, boligrafoz idazteko arbelak eta guzti.

Oro har sistema publikoari buruz aritu dira, baina eredu biei eragiten dieten gaiak aipatu dituzte. Gai horiek, orokorrean, hezkuntza-sistemak dituen gauezien isla dira, hain zuzen ere, haren titularren hezkuntzarako eskubideari ondorioak eragiten dizkiotenen isla.

Adibidez, Marokoko Gobernuak ikastetxeetarako IKHRAM izeneko plan bat diseinatu arren, ikerketa honi lagundu dioten pertsonak ez dute ezagutzen. Horrez gain, irakasleentzako prestakuntza jarraituko plan bat dagoenik ere ez dakite.

Irakasleei dagokienez, adierazi dute zenbait erakunde sindikal daudela. Baina marokoarrek ia erakunde horiek guztiak zuzentzen dituztenez, ez diete konfiantzarik ematen saharar profesionalei. Oso gutxi dira hezkuntza-sisteman, jasotakoaren arabera, oztopo ugari dituzte goi-mailako ikasketak egiteko, hain zuzen, lanbide hori burutzeko behar direnak.

Ikastetxe publikoetan lan egiten duten irakasle askok arlo pribatuan lan egiten dute ere bai. Arlo horretan baldintza hobeak daude eta ikas-taldeak ez dira hain jendetsuak. Beraz, errazagoa da eskolak ematea eta ikasgaien edukiekin aurrera egitea. Halaber, irakasleek eskolaz kanpoko laguntza eskaintzen dute maiz, eta,

batzuetan, eskaini ez ezik, behartu ere. Izan ere, eskoletako irakaskuntza ez da nahikoa, eta, horrela aparteko diru-sarrera bat lortzen dute. Horrek argi uzten du irakasleen gaitasuna, bai eta sistema publikoan lan egiten denean erraztasunik eta arduraldirik ez dagoela ere. Horrek guztiak ondorio larriak eragiten dizkie ikasleei, alderik ahulenari. Kontatu dutenez, saharar ikasleek gabeziak badituzte ere, elkarrizketatuek esan dute familia kolonoek ere ez dutela kalitatezko hezkuntza izateko adina baliabide ekonomikorik.

3.4. Baliabide materialak eta giza baliabideak

Marokoko ikastetxeen eta Mendebaldeko Saharan Okupatutako ikastetxeen egoera alderatuz gero, alde itzela dagoela ikusiko dugu. Ezin da konparatu, aldea ikaragarria da eta. Beren ikastetxeek jantokiak, komunak eta abar dituzte. Guretan hori ezin pentsatuzkoa da.

Izan ere, hemen oinarrikoena ere ez dugu, arbelak, esaterako. Zerbait ikasgelatan arbela erdi hautsita dago, eta mahaiak oso egoera txarrean daude ere bai.

Lekukotza horiek elkarrizketetan jasotako erantzun askoren edukia islatzen dute. Materialik gabeko ikasgelak, komun itxiak edo egoera txarrean daudenak, eta ur edangarririk gabe, kirol-instalaziorik edo zientzia eta hizkuntza arloetarako laborategirik eza... Azalpen hau eman dute irakasle batzuek:

Adibidez, nik batxilergoko eskolak ematen ditut lau saiotan. Gaur, esaterako, globalizazioari buruzko eskolak, bai eta Europako, Asiako, AEBetako, Brasilgo eta Txinako ekonomiei buruzkoak ere. Baina ez dugu maparik. Ez dugu mapa berririk, ez dugu mapa demografikorik, ekonomikorik, herrialdeko maparik... Herrialde honetako mapa zahar bat ematen digute, eguneratuta ez dagoena. Nola egingo dut nik lan mapa horrekin?

Ikas-liburuak dagokienez, akats mordo dago, eta liburuak ez dituzte eguneratzen. Ez dago egokitasunik... Ematen diguten denbora ez da nahikoa irakasleak ikasketa-jarduerak egoki lantzeko. Liburuak ez dira egokitzen irakasleak irakats ditzakeen edukietara. Eta zaharrak dira.

Askotan ikastetxeen kokapen fisikoa gehitu behar zaio horien baldintza txarrei. Aaiunen bigarren irakaskuntzako ikasle ugari behartuta daude beste auzo batzuetara joatera ikastetxeetan sartzeko. Joan-etorri horiek are luzeagoak dira

landa-inguruneetan; izan ere, herri guztiek ez dute ikastetxerik. Eta batzuetan gertuen dagoen herrian ere ez dute ikastetxerik. Hortaz, batzuetan distantzia luzea ibili behar dute eskolara joateko. Elkarrizketatutako gizon batek bere haurtzaroa ekarri zuen gogora. Kontatu zuenez, oso leku txiki batean bizi zen eta eskolak astean bitan baino ez ziren ematen, oso urruti geratzen baitzen, 5 kilometrotara.

3.5. Desberdintasuna, diskriminazioa eta errepresioa

Mendebaldeko Sahara gatazkan dagoen lurraldea da. Hezkuntza-sisteman gizarte horretan eta beste batzuetan nagusi diren desberdintasunak biltzen dira; eta, gainera, estatu okupatzaileen berezko helburuak lortze aldera (errepresioa, nortasun-elementuak ezabatzea, bereganatzea...), okupazioak gatazka mantentzeko hartzen dituen formak jasaten ditu.

Desberdintasunak, esan dugu lehenbizi. Errepresio-formetan ere bai zeharka agertu eta identifikatzen diren genero-desberdintasunak, aurrerago ikusiko dugunez; eta eskola-curriculumean nabarmenki islatzen direnak:

Neskak familia-heziketako eskola batera doaz, adibidez, janaria eta horrelako gauzak prestatzen ikasteko. Mutilak, berriz, beste batera doaz, informatika-eskolara, hain zuzen.

Datu horretan islatzen den sistemaren genero-desberdintasuna gorabehera, elkarrizketatu gutxi identifikatu dute gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun-tratu gisa. Eta tratu horrek emakumeak espazio pribatura eramaten ditu, zaintzak egiteko. Gizonak, ordea, ezagutza teknikoak ikastera bultzatzen ditu, goi-mailako ikasketak egin edo lanpostu teknikoak lor ditzaten; esfera publikoan, ordaintzen denean eta gizarteak aitortzen duenean. Hala ere, emakumeen errepresio espezifikoko formak identifikatu dira. Ikasleek kontaktzen dutenez, *melhfa* (saharar kulturaren bereizgarri bat da) jantzita daramatenean tratu diskriminatzailea jasotzen dute. Lehen eta bigarren irakaskuntzan, irakasleek *hiyab* oihala janztera behartzen dituzte, hau da, neska marokoarrak jantzen dutena janztera. Unibertsitatean, Marokon, irakasleek galdeketa egin dizkiete saharar kulturarekin lotutako kontuei buruz, gainerako ikasleek aurrean nabarmen gera daitezten.

Ikasle bat saharar arropekin ikusten dutenean bullying-a egiten saiatzen dira, ikastetxera itzul ez dadin. Iraindu egiten dute eta tratu laidogarria ematen diote eskolara itzul ez dadin.

Esate baterako, saharar jai nazionaletan, hala nola maiatzaren 10ean edo 20an, gutariko bati bururatzen bazaio melhfa bat edo saharar emakumeen jantzi zuri bat janztea gure borrokaren sinbolo delako, haiek zure aurka egingo dute. Badakite gure ekintzak protesta-sinboloak direla. Era baketsuan eginda ere, protestarik egin gabe eta guzti.

Guztiz kontrakoa gertatzen da ikasle marokoarrek: kolonoen alabek tratu berezia dute. Gutariko batek protesta egin nahi duenean, ikaskideek ez dute kasurik egiten. Baina marokoar batek hitz egin nahi duenean babesa eta lehentasuna ematen diote.

Adierazi dutenez, tratu diskriminatzailea oso txikitatik bizitzen dute. Oso txikitatik konturatzen dira zerbaitek gainerakoengandik desberdintzen zaituela, etxean irakatsi dizutenarekin eta zuk zure burua identifikatzen duzunarekin bat egiten ez duelako. Elkarriketatuen kontakizuna oso adierazgarria da horri dagokionez:

Lehen irakaskuntzako fasean, ikasleak, lehenbizi, patiora sartzen dira goizez, eta Marokoko himno nazionala abesten dute, nahitaezkoa da eta. Norbait eskolara ez badoa edo berandu iristen bada, espediente bat egiten diote eta Marokoko himno nazionala ez abesteko egin duela esaten dute. [...] Lehen irakaskuntzako eskola oinarrizkoenatan amazigera edo berebere hizkuntza irakasten diete, eta hori ez da sahararren hizkuntza. Haur horiek hassania, sahararren hizkuntza, ikastea ez dute nahi.

Irakasle askok ez dute errukirik haur saharar batek liburua ekartzen ez duenean edo haren ikaskidearekin hassaniaz berba egiten duenean. Adibidez, txosten bat idatzi eta zuzendaritzari igortzen dio, haurraren aurkako neurriak har ditzaten. Batzuetan ikastetxetik botatzen dute haurra, eta beste batzuetan ikastetxex aldatzera behartzen dute.

Hainbat alditan esaten dute ikaslea sahararra dela, eta, ondorioz, ez dela oso urrun iritsiko. (Lehen irakaskuntzako eztabaida-taldea)

Gazteak hazten doazen heinean, beren aurkako indarkeria nabariago bihurtzen da. Neskek adierazi dutenez, oso zaila da gizon sahararrek ikasketak aurrera eramatea. Hauxe kontatu dute ikasleek:

Bigarren irakaskuntzan, adibidez, azterketa nazionala egin behar denean kolono marokoarrek presioa egiten digute eta azterketa egi-

tea oztopatzen digute [...]. Mutilak jipoitu eta torturatzen dituzte ere bai [...].

Lehen eta bigarren irakaskuntzetan konpontzeko zailak diren egoerekin topo egiten dute. Adibidez, lehen pertsonan kontatzen dute ezin dietela kontra egin ikasgelan Marokoren historiari buruzko alderdiei, eta Marokoko himno nazionala abestera behartzen dituzte. Eta haiek hori ez dute berezkozat jotzen, inposiziotzat baizik. Inposizio horri aurre egiteko, Saharako historia eta kultura gerturatzen dizkieten ezagutzak ematen dizkiete, betiere ohartarazita ikastetxean edo kalean jarrera hori ezin dutela agertu.

Kontatu dutenez, halaber, hainbat irakaslek indarkeriaz zigortzen dituzte ikastetxean bertan. Kasu horiek lehen eta bigarren irakaskuntzetako zikloan zehar gertatzen dira, gutxi gorabehera, bederatzigarren ikasturtera arte; izan ere, ikasleak oraindik ez dira oso nagusiak eta errazagoa da zigor fisikoak aplikatzea. Gainera, irakasleek tratu kaltegarria ematen diete kalifikazioak ematerakoan; izan ere, sahararren notak haur marokoarrenak baino txarragoak izan ohi dira. Batzuetan, espediente akademikoak faltsutzen dituzte ere bai.

Ikastetxeen inguruan poliziaren presentzia kudeatzen ikasi behar dute.

[...] mutiko batzuk intifadan eta manifestazioetan aktiboki parte hartzen dute, eta, ondorioz, ezin dute ikastetxera joan, inguruan dauden polizien errepresalien beldur. Adibidez, ikastetxea utzi duten lau kasu ezagutzen ditut, polizia bertan dagoenez, ezin baitute joan.

Hori ez da estrategia berria. Bigarren intifadari, 2005ean egin zenari, erantzuna emateko, poliziak errepresalia sorta bat egin zuen ikastetxeekin batera. Bigarren irakaskuntzako ikasgeletara sartu eta mutiko eta neskato sahararrak elkarrekin jesartzea debekatu zuten, bai eta neskatoek *melhfa* janztea ere. Horren aurka protesta egiteko, manifestazioak antolatu ziren ikastetxeetan. Poliziaren erantzuna izan zen haurrak atxilotzea eta zenbait orduz torturatzea.

Kontatu dutenez, atxilotetak eta torturak areagotzen dira manifestazioak daudenean. 2010ean Gdeim Izikeko kanpamenduan gertatutakoaren ondorioz, bereziki biziagotu ziren. *Duintasunaren kanpamendua* izenaz ezaguna denak Marokoko Gobernuaren politika bortizago egin zuen, eta horren isla izan zen saharar ikasleenganako tratuaren bortizkeria. Ikasle batek edo familiako kide batek manifestazioetan, atxilotetetan edo desagertze bortxatuetan parte hartu zuenean, lehen eta bigarren irakaskuntzako hurrek tratu laidogarria jaso zuten ikasgelan: gainerako ikasleetatik banatu zituzten edo beren familiako kideen egoerari buruzko galderak egin zizkieten beren ikaskideen aurrean.

Gdeim Izik-eko urtean, 2010ean, tratu desberdina jasotzen hasi ginen ikastetxeetan. Sahararentzako ilara bat eta kolono marokoarentzako beste bat egiten hasi ziren. Sahararrei iraintzen hasi gintuzten, eta hiltzaileak [...] garela esan ziguten, bai eta ezertarako balio ez dugula ere.

Duintasunaren kanpamendu horretan zehar, irain eta tortura ugari jasan genituen. Kolono marokoarren seme-alabek nahi izan zutena egin zieten sahararrei... Eta askori eskolan atxilotu zieten azterketa bat egin bitartean. Sarekadak egiten hasi ziren, saharar gazteak instituzio guztietatik kentzeko. Batzuei salaketa faltsuak egin zizkieten.

Aurrez azaldu denez, Mendebaldeko Saharan prestakuntza jasotzen jarraitzeko aukerarik ia ez dago. Agadirera, Marrakexera, Rabatera edo Casablancara joan beharra dago, nagusiki. Hiri horietan errepresioa eta diskriminazioa ikasi beharreko karrera hautatzean islatzen da, bai eta lor ditzaketen bizi-baldintzetan ere, kontaktu dute. Nota onak badituzte ere, ez diete aukera ematen zientzietako karreretan matrikulatzeko. Letretako karrera batzuetan sartzea bakarrik uzten diete. Kazetaritza eta medikuntza karrerak, adibidez, ezin dituzte egin, adierazi dutenez. Beren aburuz, prestakuntza hori saharar auzirako baliagarria izan daitekeelako egiten dute; izan ere, hori ez da Marokoko Gobernuaren interesekoa. Azaldu dutenez, hainbat egoeratan poliziak zuzenean esku hartu du ikasle bati zer unibertsitatean ikas dezakeen eta zeinetan ezin duen esateko.

Gainera, joan-etorriak eskatzen duen ahaleginari gehitu behar zaizkio ostatu hartzeko zailtasunak. Alokatzan diren etxeak topatzea ez zaie erraz egiten. Ugazaba marokoarrek ez dute nahi beren etxeak saharar gazteei alokatzea. Matrikulatzeko unibertsitateko ikasketak egingo dituzten hiriaren erroldatze-ziurtagiria behar dute, eta hori lortzeko zailtasun handiak dituzte. Horregatik guztiagatik saharar ikasleak unibertsitateko ikasketak egingo dituzten hirietako txabola-herrixketan bizi dira gehienak, eta bertan, bizigarritasun-baldintza minimoak dituzte.

Halaber, hezkuntza-sistemara atxikitako profesional sahararrek ere azaldu dute diskriminazioa. Azaldu dutenez, debekatuta dute Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan sartzea, beren kultura eta dialektoa irakats ez dezaten. Marokoko beste eskualde batzuetara bidaltzen dituzte, eta lekuz aldatzeko edo barne-promoziorako egiten dituzten eskabideei ia inoiz ez diete erantzunik ematen. Adierazi dutenez, koordinazio-lana egiten dute Barne Ministerioaren eta Hezkuntza Ministerioaren artean. Erakunde horiek informazioa trukatzan dute, irakasle sahararrek Saharan lan egitea ekiditeko, eta are gutxiago aurrerari politikoak dituzten irakasleek. Irakasle sahararrei eskaintzen dizkieten na-

hitaezko lanpostuak beren jatorrizko herrietatik urrun daude. Ondorioz, beren familiengandik eta beren ingurunearengandik urruntzen dituzte.

Zenbait irakaslek elkarrizketa hauetan kontatu dute beste irakasle batzuen eta ikasle marokoarren gurasoen aldetik jasotzen duten tratua.

3.6. Ondorioak eta ohartarazpenak

Ikerketak iraun bitartean bildutako lekukotzek eta datuek, txosten honen orrialdetan aditzera eman denez, agerian utzi dute egoera ez dela kalitatezko hezkuntzarako eskubideaz gozatzeko modukoa. Halaber, emandako datuen arabera, gutxienez planteia daiteke Marokoko Gobernuak funtsezko eskubide bat betetzen dela bermatzeko betekizuna alde batera utzi duela.

Mendebaldeko Saharan okupatutako eremuetan (baita unibertsiteatearen arloari dagokionez Marokon erreferentziazkoak diren hirietan ere) hezkuntza-sistema desberdintasunez, diskriminazioz eta errepresioz beterik dago, eta horiek eraso zuzena egiten diete saharar nortasunari eta jatorri horretako ikasleei.

Ikastetxe publikoak ez du baliabide materialik, ezta giza baliabiderik ere. Eta, gainera, marokoar kultura eta ikuspegia suspertzeko pentsatua dago, saharar nortasunari kalte eraginez. Pertsona batzuen zuzeneko lekukotzen arabera, debekatuta dute beren jatorria eta kultura islatzen duen manifestazio publikorik egitea, eta, gainera, marokoko kulturaren nortasun-elementuak bere egitera behartzen dituzte ikastetxean.

Eskainitako eredia desegokia da irakaskuntzarako eta ikasleen garapen akademikorako, edukiengatik eta baliabideengatik. Eta horrek ondorio larriak eta zuzenekoak ditu haur sahararren gain. Datu kuantitatiborik ez badago ere, bildutako lekukotzen arabera, saharar gazte ugari uzten dute eskola. Ikasgelan eta ingurunean jasaten duten presioari (poliziaren presentzia, jazarpena ikastetxean eta ikastetxera bidean) gehitu behar zaio dagoeneko aipatutako eskoletan lortzen den errendimendu urria eta aintzat hartu behar diren testuinguru orokorretik eratorritako beste faktore nagusi batzuk. Hala, elkarrizketatutako ama sahararrak beldur dira beren seme-alabak ikastetxe publikoetara eramateaz. Ez dute uste espazio ziurrik direnik, poliziaren presentziagatik, irakasleek ematen dieten tratueingatik edo ustezko droga-kontsumoarengatik. Drogak presentzia handia du ikastetxeetan. Familien egoera gehitu behar zaio horri guztiari. Ez dute baliabide ekonomikorik, eta familia asko desegituratuta daude. Osasun-egoera txarrean daude eta haurren elikadura txarra da.

Irakaskuntza pribatuak kalitate hobea eskaintzen du, nahiz eta hainbat gabezia agerian geratu diren. Irakaskuntza pribatuak Marokoko kulturen eta historia eta mundua ikuspegi horretatik ikustean ardatzen den hezkuntza-planaren eragina jasotzen du ere bai. Ondorioz, kontzienteki ezkututzen dute saharar he- rriaren eta haren aberastasun kultural eta identitarioaren errealitatea. Gainera, hezkuntza-eredu horretara familia gutxik dute sartzeko aukera.

Saharar profesional prestatu urriek ez diete lurraldean eskolak ematen uzten, eta ez dute etengabeko eta birziklatzeko prestakuntza-programarik jasotzen. Horrez gain, ez dute aukerarik erakunde sindikalen bidez antolatzeko, ez eta beren egoera hobetzeko aldarrikapenik egiteko ere. Gurasoen edo ikasleen elkarterik ere ez dago, kalitate handiagoko eta berme ugariak dituzten ikas- tetxerik aldarrikatzeko nahikoa gaitasun duenik.

Deskribatutako testuingurua, elkarrizketatutakoen arabera, ez da ezustekoa, kontrakoa baizik. Uste dute Marokoko Gobernuaren estrategia politikoa dela, lurralde okupatuetako biztanleek, bereziki, sahararrek, gizarte-eskalan gora egiteko aukera emango dizkieten ezagutzak lor ez ditzaten. Baliabide ekono- mikorik ez duten familietako seme-alabek ez dute ikasten, eta horrek eragin handia izango du beren etorkizunean. Ulertzen dute kultura-eskubideak eta hezkuntzarako eskubidea murriztea zuzeneko zigorra dela, eta analfabetismoa errepresio-neurri gisa inposatzen dietela.

Halere, gazteen hitzetan, *[guk –neskek–] ikasten jarraitzeko eskubideari heltzen diogu oraindik [...]. Gure nahia da ikasten jarraitzea.*

Nazioartean aitortu den kalitatezko eskubidearen ezaugarriak dituen hezkuntza-sistema beharrezkoa da. Printzipioz, paperean, Marokoko Gober- nuak babesten dituen eta nazioarteko komunitateak konferentzien eta nazioar- teko itunen bidez estandarrak dituen hezkuntza-sistema behar da. Hezkuntza bidezko gizarteetako euskarrietako bat da, eta, horregatik, oso garrantzitsua da Mendebaldeko Saharan giza eskubideak garatzeko eta errespetatzeko benetako ahaleginak egiteko neurriak ikertzen eta aldarrikatzen jarraitzea.

Kontsultatzeko eta informazioa hedatzeko bibliografia

Gidaliburuak, artikuluak eta argitalpenak

BÁRBULO, T. (2011), *La historia prohibida del Sáhara Español*, Bartzelona, Ediciones Destinos S.A.

BERISTAIN, C. eta GONZALEZ HIDALGO, E. (2012) *El Oasis de la Memoria. Violaciones de derechos humanos y memoria histórica en el Sáhara Occidental*, Bilbo, Hegoa
http://publicaciones.hegoa.ehu.es/assets/pdfs/284/El_Oasis_de_la_Memoria_RESUMEN.pdf?1356518612

CARATINI, S. (2006) *La prisión del tiempo: los cambios sociales en los campamentos de refugiados saharauis*, Bilbo, Bakeaz

CHACÓN ORMAZABAL, A. eta LÓPEZ BELLOSO, M. (2011) “Feminismo y cooperación descentralizada: experiencia de la Unión Nacional de Mujeres Saharauis y la Red Vasca de apoyo a la UNMS”, in *La Cooperación y el Desarrollo Humano Local: Retos desde la Equidad de Género y la Participación Social*, (or.: 115-131) Bilbo, Hegoa

CHACÓN ORMAZABAL, A. (2013) “Mujeres en conflictos armados. Breve acercamiento a otra forma de entender la construcción de la paz” in *Alternativas feministas ante la crisis* (or.: 67-81) Bilbo, Mundubat Fundazioa

ECOSOC (2009) Observación General nº 20. La no discriminación y los DESC, 42º periodo de sesiones, Geneva
www2.ohchr.org/english/bodies/cescr/docs/E.C.12.GC.20_sp.doc

- GARCÍA CALVENTE, M. (Coord.), (2010), *Guía para incorporar la perspectiva de género a la investigación en salud*, EASP
<http://www.umaza.edu.ar/archivos/file/GuiaInvestigacionGenero.pdf>
- GIMENO, S. (2013) *Situación de los derechos civiles y políticos: de 1999 a la actualidad*, Seipaz
http://www.seipaz.org/documentos/SAHARA_SantiGimeno.pdf
- La situación de los derechos humanos en los territorios ocupados del Sáhara Occidental* (2008), Vitoria-Gasteiz, Arabako SEADen Lagunen Elkarte, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
http://www.euskalfondoa.org/files/documentos/Informe_DDHH_castellano_maqueta.pdf
- SOBERO, Y. (2010) *Sáhara. Memoria y olvido*, Bartzelona, Ariel
- SOROETA LICERAS, J. (2005) “El Plan de Paz del Sahara Occidental, ¿viaje a ninguna parte?”, Revista Electrónica de Estudios Internacionales aldizkaria, 10. alea
<http://www.reei.org/index.php/revista/num10/articulos/plan-paz-sahara-occidental-viaje-ninguna-parte>
- MARTÍNEZ LILLO, P., ARIAS CAREAGA, S., TANARRO ALONSO, C. eta WEINGÄRTNER, J. (2009), *Universidad y Sahara Occidental. Reflexiones para la solución de un conflicto*, Cuadernos Solidarios. 6. alea - Ekintza Solidarioaren eta Lankidetzaren Bulegoa, Madrilgo Unibertsitate Autonomoa
- EBaren eta Marokoko Erreinuaren arteko arrantza-protokoloaren inguruko txostena (2013ko abenduaren 1a). Giza Eskubideen Behaketarako Nazioarteko Elkarte - GEBNE
- GENBGK, Giza Eskubideetarako Nazio Batuen Goi Komisarioa (2008) *Trabajando con el Programa de las Naciones Unidas en el ámbito de los DDHH. Un manual para la sociedad civil*, NY eta Geneva, ACDH
<http://www.ohchr.org/SP/AboutUs/Sociedadcivil/Pages/Handbook.aspx>
- GENBGKB, Giza Eskubideetarako Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoa (1996) *Comité de Derechos Económicos, Sociales y Culturales*, NY eta Ginebra, 16. informazio-liburuxka, ACDH
<http://www.ohchr.org/Documents/Publications/FactSheet16Rev.1sp.pdf>
- GENBGKB, Giza Eskubideetarako Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoa (2009) *Preguntas frecuentes sobre los Derechos Económicos, Sociales y Culturales*, NY eta Geneva, 33. informazio-liburuxka
http://www.ohchr.org/Documents/Publications/FS33_sp.pdf

Ikus-entzunezko materiala

“Oulda lemozun” (Hodeien seme-alabak) dokumentalari dagokion animazioa. Aleix Saló (2012) Hemendik hartua: <https://www.youtube.com/watch?v=QEIcWg2WJyc>

“Voces y silencios del Sáhara” *En Portada*. RTVE (2010) Gidoia: Yolanda Sobero, Real. José Jiménez Pons. Hemen eskuragarri: <http://www.rtve.es/alcarta/videos/en-portada/portada-voces-silencios-del-sahara/773135/>

“Hijos de las Nubes (Oulda lemozun)”. Zuzendaria: Carlos Gonzales (2006). Hemen eskuragarri: <http://vimeo.com/33290462>

“La Badil (No Other Choice)” (2012ko abuztuaren 20a). Zuzendaria: Dominic Brown, Dancing Turtles Films. Hemen eskuragarri: <https://www.youtube.com/watch?v=sekA21sVviU>

MEDIATEKA: Arabako SEADen Lagunen Elkarreak eraturako eta eguneratutako Mendebaldeko Saharako gatazkarekin lotutako ikus-entzunezko baliabideen lineako gidaliburua.

<http://www.saharaelkarrea.org/es/mediateka-films/>

Kontsultarako webguneak

Giza Eskubideetarako Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoa

<http://www.ohchr.org/SP/Pages/Home.aspx>

Giza Eskubideen Kontseiluaren prozedura bereziak

<http://www.ohchr.org/SP/HRBodies/SP/Pages/Welcomepage.aspx>

Orrialde horretan prozedura bereziei buruzko behar den informazio guztia aurki daiteke, zehazki, gai-aginduekin lotutako guztia; eta dagokigun lanerako garrantzia berezia dute:

- Pertsona guztiek ahalik eta osasun fisikorik eta mentalik onena izateko eskubidea errelatore berezia.
<http://www.ohchr.org/EN/Issues/Health/Pages/SRRRightHealthIndex.aspx>
- Errelatore berezia hezkuntzarako eskubideari buruz.
<http://www.ohchr.org/EN/Issues/Education/SREducation/Pages/SREducationIndex.aspx>

Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseilua (Herrialde-orrialdea: Maroko)
<http://www.ohchr.org/EN/countries/MENARegion/Pages/MAIndex.aspx>

Aldizkako Azterketa Unibertsala (UPR, ingelesezko siglen arabera, Universal Periodic Review)
<http://www.upr-info.org/database/>

Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Batzordea (EESK Batzordea)
<http://www.ohchr.org/en/hrbodies/cescr/pages/cescrindex.aspx>

Emakumearen aurkako Diskriminazioa Desegiteko Batzordea CEDAW
<http://www.ohchr.org/en/hrbodies/cedaw/pages/cedawindex.aspx>

Nazio Batuen Hezkuntzaren, Zientziaren eta Kulturaren aldeko Elkartea – UNESCO
<https://es.unesco.org/>

AFRIKAKO BATASUNA – Itunak, hitzarmenak eta protokoloak
<https://au.int/en/treaties>

RefWorld
<http://www.refworld.org/cgi-bin/texis/vtx/rwmain?page=search&skip=0&query=&coi=MAR>